



ARGIA

5.379 TORTURA KASU EUSKAL HERRIAN

Gobernuek estalitako errealitatea azaleratzeko karpeta urdinak



#2.812 | 2023/02/12 | 4,00 €

24-31. orrialdeak



***Pentsio publikoak
desagertzeko
arriskua AEBetan***

12 | EKONOMIA




***Zinema eta energia
berriztagarriak
uztartuta***

32 | 'TA ARGIA INI ZAN'



***Nerea Ibarzabal
'Bar Gloria'
eleberriaz***

44 | KULTURA



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZEZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
ARES ROMANS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO

44 | **NEREA IBARZABAL** "BAR GLORIA" ELEBERRIAZ

Amaia Lekunberriren galderei erantzunez, Nerea Ibarzabalek lehen eleberriko sormen prozesua azaldu du, eta liburua zeharkatzen duten gaiez mintzatu da. Langileen bizitzaz, indarkeriaz, harremanez eta eutsi beharrean beste bide batzuk hartzeaz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Pentsio publikoen desagerpena Floridan

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | LUZIO TABAR

"Pertsona guztientzat posible ez dena pribilegioa da"

Reyes Ilintxeta

24 | POLITIKA

Egia, aitortza eta erreparazioa eskatzen dituzte torturatuek

Xabier Letona

32 | "TA ARGİYA İN ZAN" EMANALDIA

Energiaren dilemak Urumea ibai barrutik

Estitxu Eizagirre

36 | HISTORIA | TUTERAKO KARTZELA

1936ko errepresioaren gune nagusietako bat, proiektu urbanistikoen jomugan

Urko Apaolaza

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola, Lide Iraola,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egile eta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.

Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliatze beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



A high-angle, wide shot of a large industrial facility, likely a tank factory, filled with numerous Leopard 2 tanks. The tanks are arranged in rows, some facing forward and others in profile. They are painted in a light olive green color. The facility has a high ceiling with visible steel beams and large windows in the background. The tanks are densely packed, filling most of the floor space.

Bakearekiko konpromisoa

Aste honetan abiatu dira Santurtzitik Ukrainara herritarren zergekin erositako ibilgailu blindatuak. Tankeak “bakearekiko konpromisoaren” adierazle dira, Espainiako Margarita Robles gerra ministroaren hitzetan. Aurrerago Leopard tankeak bidaltzeko asmoa du Espainiako “ezkerreko” gobernuak. Horien kateak eta errodaje-tresnak Aperribay familiaren SAPA enpresa gipuzkoarrak fabrikatzen ditu, Eusko Jaurlaritzak diru publikoz hornituta. Bakearen izenean gerra egin daiteke, baita negoziua ere. Irudian, Freddy Versluys arma trafikatzaille belgiarrak erositako tankeak (500 bat), tartean Europako hainbat herrialdek Ukrainara bidaliko dituzten Leopard alemaniarrek. *The Guardian*en arabera, enpresariak orain negoziua egin nahi du “Ukrainako armadaren beharretarako” prezio merkean salduta.



REUTERS



AXIER LOPEZ

AHTren obrek Lezetxiki haitzuloa kaltetu dutela salatu dute

 URKO APAOLAZA AVILA

Arrasateko Lezetxiki haitzulora sartzeko ohiko pasabideetako bat harriz estalita aurkitu dute, eta barrualdea Abiadura Handiko Trenaren tunelak erdiz erdi "zulatuta". Euskal Herriko historiaurreko aztarnategi garrantzitsuenetakoa da Lezetxiki, gizakiaren aztarnarik zaharrenak aurkitu dira bertan, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak duela hilabete gutxi izendatu ditu harpea eta azpiko galeriak Babes Bereziko Kultura Ondare. Adifek eta Gipuzkoako Aldundiak ukatu egin dute aztarnategia bera kaltetua izan denik.

Arrasate eta inguruko espeleologo talde batek Lezetxiki haitzuloa erabat kaltetuta aurkitu du AHTren obren ondorioz. Azaldu dutenez, duela bi urte konturatu ziren haitzulora sartzeko "ohiko bide bat" eroritako harri handiz zegoela estalita eta ezin zela handik igaro. Duela gutxi, ezezaguna zitzaizen beste pasabide batetik sartu dira eta "izugarritzko kareharri eta lur-jausia" aurkitu dute; eta barrurago, AHTko obren tunel batekin egin dute topo.

"40 bat metro aurrerago, metalezko sarek eta xaflez osatutako horma atzeman genuen. Hobeto aztertu ondoren, Abiadura Handiko Trenaren tunelaren kanpo estaldura zela egiaztatu genuen", azaldu dute ohar bidez. Prentsara bida-

litako irudi eta bideoetan ikus daiteke Lezetxikiko galeria harrizko anabasak hartua eta metalezko egitura zilindriko handi batek erdiz erdi zulatua.

"Ez dugu zalantzarik kaltea handiagoa dela, agerian ez badago ere", diote espeleologoez, eta gogor salatu dute gertatutakoa: "Onartezina da Lezetxiki modu horretan suntsitzea, Euskal Herriko ondare arkeologiko garrantzitsua eta guretzako kobazulorik kuttunena dena".

Arkeologoez eta tokiko erakundeek urteak zeramatzaten haitzuloa legez babesteko eskatzen

GIZA AZTARNA ZAHARRENAK

Lezetxikin aurkitu zituzten Euskal Herriko giza aztarna zaharrenak Jose Migel Barandiaranek eta Jesus Altunak: duela 156.000 urteko emakume baten besoondoa. Baina horrez gain, beste aztarna asko ere azaleratu dituzte. 1996tik EHUko Alvaro Arrizabalagak zuzendutako indusketetan, besteak beste, haitzuloe-tako hartzaren eta lehoiaren hezurrak azaldu dira, baita Aurignac aldiko eta

Mousteriar aldiko industria litikoa, homo sapiens baten garaialdea eta neandertal gizakiaren haginak ere. Hain justu, hagin horien inguruko ikerketa berri batek Iberiar Penintsula iparraldeko neandertalen arrasto berrienak direla berretsi du.

Jaurlaritzak 2022ko ekainean Babes Bereziko Kultura Ondasun izendatu zuen Lezetxikiko aztarnategia, Gune Arkeologiko kategorian emanda. Lezetxikiko kobazuloa, azpiko galeriak eta harpea bera dira babestutako elementuak.

AHT-REN LOTUNEAREN ERDIAN

Udalaiztik gertu kokaturik, AHTren ibilbidearen hastapeneko proiektuak bete-betean harrapatzen zuen Lezetxiki, eta desagertuta legoke seguruenik, proiektuari 1998an jarritako helegiteengatik ez balitz. Nolanahi ere, arkeologoez eta tokiko erakundeek urteak zeramatzaten haitzuloa legez babesteko eskatzen.

AHTren lotune nagusietako baten inguruan dago Lezetxiki, eta hango lanak azken bizpahiru urteetan asko azkartu dira. Hain justu, espeleologoez duela bi urte haitzuloren galeria itxita aurkitu zutenean, obren danbateko eta dardarak entzuten zirela ziurtatu dute.

ADIF SOZIETATEAREN ERANTZUNA

Arrasate-Elorrio zatiko AHTko obren eskumena Adif sozieta-tearena da, eta ohar bidez argitu nahi izan du kaltetutako eremua katalogatu gabe zegoela, eta AHTren obrak haitzulora sartu zirela ohartzerakoan Gipuzkoako Kultura sailari abisua igorri ziola. Foru arkeologoez egindako azterketak ondorioztatu zuen "haitzuloren egoera orokorra ona zela eta ez zegoela aztarna arkeologiko eta paleontologikorik", dio Adifek.

Gipuzkoako Aldundiko Kultura sailak, bere aldetik, esan du aztarnategitik "distantzia askora" dagoela irudietan ikusten den galeria hori, haitzuloren "beste muturrean" eta babestutako eremutik kanpo. Gainera, gogorarazi du duela urte batzuk ere Lezetxikiko galeria bat kaltetua izan zela inguru horretan, AHTren obrenagatik. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Aktibo



UXUE APAOLAZA LARREA

Gustatzen zaizun lan bat eduki, beti lan egiteko gogoia izateko. Etxea txukun izan. Ordenatuta. Zeuk bakarrik ikusiko baduzu ere inoiz gonbidaturik ez daukazulako. Larrua jo laurogeita hemeretzi urtera arte, alegia, bizitza sexual aktiboa izan (aktiboa, beti da garrantzitsua dena aktiboa izatea). Gailu asko daude hori gauzatzeko, bitarteko asko nekeak itzalitakoa sasipizteko. Gustatzen zaizun moduan, zarena adierazten duen, edo izan nahi duzuna islatzen duen moduan jantzi (horretarako hainbat txantilo daude bazter guztietan). Ondo jan. Kirola egin. Mendira joan. Atera, atera lagunekin zerbait hartzera.

Hori nire borondatez egin behar dut. Oso nire hobe beharrez. Kontua da libratu ezin naizen gauzen zerrenda luze-luzea dela. Zakarra atera, adibidez, egin behar izaten da. Ondo bereizita. Ontziak eta arropa garbitu. Etxe osoa. Tira, ia osoa, oso maiz, eta beste gauza batzuk ez dakit zehazten zenbatero (kristalak?). Gogoratu oihalezko poltsa erosketara egiteko. Eta jantzi, lan egin behar izateko fortuna baldin baduzu, jantzi egin beharko duzu, garbi. Zu ere garbi, duxatu beraz. Erosi; hori guztia egiteko zerak erosi. Eta umeak badituzu, zerrenda amaigabetzen da.


Eta politikariek, ideien bat badarabiltela adierazteko, ideia hori dioten norabidean doala frogatzeko, ez-idea berari lotzen zaizkio (gero elkarri errepikatzen dioguna): borondatea, esfortzua... indibiduala, gurea. "Denok" egin behar dugun esfortzuren bat aipatzen dute, "herritarrek" kontzientziatu behar direla esaten dute. Alegia: ez dakigu zer egin, ezin da ezer egin, ez dugu ezer egin nahi, esaten ari garenaren kontrakoa egiten ari gara, segi zuek eginean, arraunean ari bazinate bezala, ontziren bat badela sinetsita.

Eta aktibo segi. Ez gelditu. Ez gelditu alferkerian. Ez pentsatu, beraz; ez irakurri, beraz. Jo larrua laurogeita hemeretzi urte eduki arte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Hezkuntza

Batxilergoko ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak ez ditu diru publikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak, 2023-2024 ikasturtean ituna ez luzatzea erabakita. Eusko Jaurlaritzak ere iragarri du ez dituela finantzatzeko sexu bereizketa egiten segitzen duten Opus Deiko ikastetxeak.

Osasuna

Nafarroako Medikuen Sindikatuak deitutako greba mugagabea hasi zuten joan den astean eta, astekari hau ixteko unean (otsailaren 6an), Osasun Departamentuarekiko negoziazioek ez dute aurrera egin. Otsailaren 15erako sindikatu ia guztiek grebara deitu dute Nafarroako osasun publikoan.

Zabortegeiak

Zaldibar Argitu plataformak deituta, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak omendu dituzte Eitzaga auzoan, zabortegeia harrapatuta geratu zirenetik hiru urtera. Auzia argitzeko beharra berretsi dute eta ardura politikoak hartzeko eskatu. "Inork ez du ardura bere gain hartu".

EKONOMIA

Kalera, erretreta izango dudan jakin ez arren



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Kalera atera naiz, erretretarik izango dudan ez dakidan arren” erantzun zion kazetariari gazte batek Baionako mobilizazioan. Erantzunak zer pentsatua ematen du. Pentsio sistema publikoa ongizate ereduaren oinarrietako bat da, eredu sozialaren ardatza. Lan merkatutik kanporatua izatean bizirauteko dugun baliabidea, bizitza osoa lanean aritu ostean zahartzaroaz disfrutatzeko dugun eskubidea... guztiok begiratzen diogu zahartzaroari pentsioan pentsatuz. Eta gaztearen erantzunak erakusten duenez, geroz eta gehiagok begiratzen dio inolako ziurtasunik gabe.

Erreformaz erreforma, finantza sistemak nahi gintuen eta behar gaituen lekuan jarri gaituzte gobernuek. Nahikoa izango den, pentsiorik izango ote dugun... Zalantza horrekin ari gara erabakitzen zer egin, sistema pribatura jotzearen aukera elikatzen duen pentsamendu markoa apurtzen ez dugun bakoitzean.

Pentsio publikoen eztabaida kostuan zentratzen duen, eta produktiboak izateari uztean langileok zama garela pentsarazten digun diskurtsoan hazi eta hezten ari dira langile belaunaldi berriak. Apenas entzuten da pentsioen finantzazioa kotizazioetara mugatzea Toledoko Itunean erabaki zela, edota sistema publikoa herritarrek sortzen dituzten baliabideekin sostengatzea posible ez ezik, bidezkoa eta zilegi dela.

Belaunaldien arteko elkartasunean oinarritzen den pentsio sistema publikoa, langile belaunaldi ezberdinek eskuz esku eta elkarlanean defendatzea. Hori da borroka honek behar duen diskurtsoa, iruditegia eta pentsamendu markoa eraikitzeko bidea. Ahaztu gabe, “eta orain zer” dela emakume askoren zalantza, bizitza osoan zaintza lanetan egin ondoren. ●

ANALISIA



Erantzukizun soziala

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Herritar bakoitzaren betebeharra da jarrera eredugarria izan, errespetuz jokatu eta gizarteari bere *aletxoa* jartzea, txikia bada ere, denon mesederako izan dadin. Horregatik, behin gaueko orduak heltzean zaratarik ez duzu egingo bizilagunaren atsedean orduak errespetatzeko; zakarra zakarretara botako duzu –eta ahal bada birziklatu– planetaren mesederako; garraio publikoan bidaiatzean, umeen negarrak entzutea egokitzen bazaizu, muturra okertu gabe jasango dituzu; liskarrak saihestuko dituzu; eta adinekoei edo mugikortasun ezintasunak dituztenei lagundu egingo diezu hala behar dutenean.

Albisteen errepasoa egin eta jabetzen zara inoizko diru irabazirik handienak izan dituela etxe alboan zeneukan banka-entitateak. Leihatila itxi zuen duela bizpahiru aste, arrazoi sendo eta argirik eman gabe. Pentsatuko duzu, irabaziak baino galera ekonomikoak ekarriko zizkiola zerbitzua zabalik mantentzeak, eta horregatik hartuko zuela ixteko erabakia. Finean, murrizketak aplikatu dituela errentagarri izateko, herritarrei zuzendutako zerbitzuek ere errentagarri izan beharko luketela dioen patroiarri jarraituz.

Azkenean, etxe alboan zenuen leihatilara beharrean, aurrerantzean, zurea den diruaren bila joateko, beste auzo bateko leihatilara bertaratu beharko duzu. Han elkartuko zarete hiru auzoetako bizilagunak, hirugarren hartan ere itxi egin dutelako leihatila. Edo okerrago: herriko zerbitzu bakarra kendu eta alboko herrira joan beharko duzu. Ilaran jarri, inoiz baino gehiago itxaron, aurretik eta atzetik dituzunei begiratu eta gauza bera pentsatzen ari zaretela ulertu: “Hauxe da dagoena”.

Atzera ere albisteei begira jarri eta bezero zaren banka-entitateko presidente jauna ikusten duzu hizketan. “Bidegabea” dela dio irabazi handien gaineko zerga berezia aplikatzea, haiei “esker” funtzionatzen duelako ekonomiak. Bestalde, bere burua aurrerakoitzat definitzen duen gobernuak “erantzukizun soziala” eskatu die bankari eta enpresari handiei, eta gauza bera entzun dugu hedabide handien solasaldietan: ez dela zilegi beste orbita bateko hipotekak ordainarazi eta horien bidez aberastea, hori ez dela eredugarri izatea.

Kale gorrian gera zaitezke putreek bezala espekulatzen duen bankaria delako zure maizterra; zure bankariak armak bidaltzen jarraituko du edozein gerratarra herri xehearen odolaz zikintzeko; eta, aldi berean, petrolioa utzi eta kotxe elektrikoa erostera bultzako zaitu bankari lagunak, ingurumenaren mesedetan delako. Edo etxebizitza erostera animatu, nahiz gero kreditu bat eskatu eta aukerak mila bider zaildu. Konbentzitu beharko duzu azken urteetako nominak eskuan hartuta. Gero, hori bai, zure ardura da ordaintzea. Baina agintzen duena Euribor indizea da: 150.000 euroko hipoteka baldin baduzu, hilean 300 euro gehiago ordaintzeko loteria egokitu zaizu. Mauka ederra, dena den; inon gutxi aurki daitezke eta gaur egun prezio horretako etxebizitzak. ●

350

biztanle galdu ditu Zuberoak (-%2.55), 2014 eta 2020 urteen artean. Galera handienak Maule, Barkoxe, Sohüta, Garindaine, Ligi, Mitikile, Atharratze, Bildoze, Altzai eta Montori herrietan izan dira.

380.200

pertsona daude pobrezian Euskal Herrian, lehengo urtean baino 48.500 gehiago. Gaindegia behategiaren datuak dira. Euskal herritarren berotegi-efektuko gas isurketa mundu mailakoaren batez bestekoaren ia bikoitza dela ere adierazi du.

34

ikasleri EHUK espedienteak ireki nahi diela salatu du Ikasle Abertzaleak kolektiboak. Joan den ikasturtean, Gasteizen 34 ikasle atxilotu zituen Poliziak manifestazio batean, eta orain EHUK gutuna helarazi die, espedienteak irekiko dizkietela jakinaraziz

“Oso haserre eta inpotente gaude, Mañeru eremu ‘ez euskaldunetik’ mistora pasatzeko eskaera ez delako aurrera atera”

NURIA GARCIA

Mañeruko alkatea da Garcia. PSN eta Navarra Sumaren kontrako botoengatik, Mañeruko udalbatzaren eskaera (eremu mistora pasatzea) ez da aurrera atera Nafarroako parlamentuan. “Ez dugu ulertzen PSNren jarrera”.

ARGIA.EUS (2023-01-31)



“SENTITZEN DUT RENFEK EROSI NAUELA ETA EZ DUT PRIBILEJIATUA IZAN NAHI”

MARIA LUISA GOIKOETXEA

Goikoetxeak mugikortasun mugatua du eta Renfek arrapala sistema eskaintzen dio trenez bidaiatu ahal izateko. Ia bost urteren ondoren, aukera hori soilik berari ematen diotela salatu du.

AIARALDEA (2023-02-01)

“Epaiketa erabiliko dugu presoen eta konponbidearen egoera zertan den azaltzeko”

HARITZ AGIRRE

Iazko uztailaren 23an Ipar Euskal Herrian buruturiko blokeo egunean autobidea blokeatzeagatik epaitu dituzten hamaika bakegileetako bat da Agirre.

ARGIA.EUS (2023-02-02)



TEKNOLOGIA

Subiranotasun teknologikoa eta emakumeak zientzian



DIANA FRANCO

Garai arraroak bizi dirugu eta inoiz baino informatuago gaude. Badakigu zein den Ukrainan ematen ari den gerraren eragina hornikuntza energetikoan. Eta horrek munduan duen eragina. Baita Taiwaneko txipak direla-eta Txina eta AEBen artean duten gatazka ere, munduko eraldaketa digitalaren norabidearen boterea eskuratzeko. Azpiegitura errizoma konplexu bat sortzen dabilta, bakoitza bere aldetik, bazterrean geratzen denari arreta handirik jarri gabe.

Europak bere indarra mantendu nahi du erraldoi hauen erdian, eta badirudi subiranotasun teknologikoaren bidea hartu duela. Berau sustatzeko ekintza batek txipak fabrikatzeko neurriekin du lotura, txipak gizakiak eta gizarteak bideratzeko baliabide bilakatu diren heinean.

Errealitate honetan, ARM txipen inguruan berba ugari irakurtzen eta entzuten ari gara, zelan hardware garatzaile askok teknologia horrekin euren txip propioak diseinatzeko bidean dauden. Badirudi txip hauek abantaila asko dituztela, baina software librearekin gertatu zen bezala, eraldaketa horretan hardware librearen zeresan handia duela susmatzen dut. Azken batean, ezagutza partekatzen denean pertsona gehiagok sortu dezaketelako, ezagutza horretatik abiatuta.

ARM txipen atzean jende asko dago (inork ez du ezer bakarrik sortzen), baina txip horren arkitekturaren bihotza sortu zuena Shophie Mari Wilson da, RISK arkitekturan oinarrituta (Reduced Instruction Set Computer=Agindu Talde Gutxiko Ordenagailua). Hau da, Sohphiek, agindu gutxiarekin, sinpleagoa den txip eraginkor bat sortu zuen. 2012. urtean mugikorren %95ean ezarri zen txipa.

Egun, subiranotasun teknologikoaren bidean, ARM ereduaren inspiratuta sortu diren V-RISK hardware libreko txipak eragile garrantzitsuak izan daitezkeela dirudi. Subiranotasuna eta ezagutza irekia dira adibidea, ulertzeko herrien arteko harremanak zapalkuntzan baino elkarlanean sustatu daitezkeela. ●

NAZIOARTEA



Denok ordu gehiago lantokian, soldaduek arma gehiago izan ditzaten

Ukrainako gerrak eragindako ondorio kaltegarrien artean dago Europako herrialde gehienek gastu militarra handitu nahi izatea, AEBek gidaturiko NATO erakunde gerrazaleak ezarri dituen irizpideak betetzeko. Hau da, nagusiki herritarrek zerga bidez estatuari emandako dirutzatik, zati handiagoa bideratu nahi dute gure artean arma eta soldadu gehiago egon daitezzen. Beraz, noiz eta askotariko krisi batean sarturik gaudela, nola atera diru gehiago BPGaren %2 militarrei bideratzeko? Bada, sozialdemokraziaren ikurretako bat (izan) den Danimarkak galderari eman dion erantzuna argigarria da oso: langileen lan-egutegitik jaiegun bat kentzea. Alegia, langileek urtean egun bat gehiago lan egitea, estatuak diru gehiago lortu, gobernuak "defentsa" aurrekontua handitu eta hala, militarrek langile gehiago eta azkarrago hiltzeko gaitasuna hobetu dezaten. "Ezkerrak" proposatutako neurria da. Mette Frederiksen lehen ministroak horrela justifikatu du: "Europako gerra bat dago, gure defentsak indartu behar dira, eta denek pixka bat lagundu beharko dute".

Langile daniarrek 11 jaiegun dauzkate egutegi ofizialean eta horietatik Store bededag (Otoitz Handiaren eguna) deitutakoa kendu gura du gobernuak. Jai erlijiosoa da, gehienak bezalaxe, eta, beraz, sindikatuek gain, Eliza luteranoa ere ken-

tzearen aurka agertu da. Gobernuak argudiatu duenez, gehiago lan egin da, enpresen produktibitatea handituko da, eta horrela 400 milioi euro inguru aurreztuko dituzte.

Hala, igande honetan, Kopenhagen neurri horren aurka 50.000 pertsona baino gehiago bildu dira, sindikatu antolatzaileen arabera. FH sindikatua da indartsuena, 1,3 milioi bat afiliatu ditu, 5,9 milioi biztanle dituen herrialdean. Lizette Risgaard da sindikatuko burua eta ohartarazi duenez, "politikariek lan-merkatutik kanpo geratu beharko lukete, ez liokete langileen gehiengoari beren iritzia inposatu beharko, eta horrelako jarraituz gero gure arteko akordioak urratuko dituzte". Sindikatuak sinadura bilketa hasi du gobernuari eskatzeko proposamena bertan behera uzteko edo erreferenduma deitzeko.

Diruarekin armak erosten dira, baina arma horiek hartuko dituen pertsona gehiago behar da. Horretarako ere Danimarkako Gobernuak badu irtenbidea: derrigorrezko soldadutza emakumei ere ezartzea. Defentsa ministro Jakob Ellemann Jensenek telebistan adierazi duenez, Danimarkak ezin ditu boluntarioak bakarrik onartu, eta mundu guztiak, emakumeak barne, derrigorrezko soldadutza egiteko prest egon beharko luke.

Alejandro Gomabieta idazleak esango zuen bezala, hinteligentzia militarrek bizi gaitu. ●

Inauteriak 2023 oinarritzko egutegia

 DANTZAN.EUS

Urtarrilak 30, astelehena
Ituren, Aurtitz eta Zubietza: Mozorroak eta Joaldunak

Urtarrilak 31, asteartea
Zubietza, Aurtitz eta Ituren: Mozorroak eta Joaldunak

Otsailak 2, osteguna
Arantzaz: Mozorro zuriak

Otsailak 3, ostirala
Arantzaz: Mozorro zuriak

Otsailak 4, larunbata
Donostia: Kaldereroak
Donibane Lohizune: Hartzaren eguna
Anhauze: Basaldunak eta Txilintxadunak
Andoain: Axerien puska biltzea
Arizkun: Gizakundea

Otsailak 5, igandea
Donostia: Inude eta artzaiak

Otsailak 10, ostirala
Ziburu: Sorgin gaua
Igantzi: puska biltzea ostirala

Otsailak 11, larunbata
Lizartza: Puska biltzea eta inauteri dantzak
Arano: Zomorroak, puska-biltzea eta zahagi-dantza
Oiartzun: Ihote-dantzak, intxixuak eta sorginak
Eibar: Koko marruak baserriz baserri eskean eta koko-dantzak
Ilarduia, Egino eta Andoin: Lastozko gizona
Igantzi: Puska biltzea
Iruñeko Kauterak
Bera: Kaldereroak
Kuartango: Porreroak

Otsailak 12, igandea
Lizartza: Puska biltzea eta inauteri dantzak

Irun: Inude eta artzaiak
Lekorne: Baigurako libertimendua

Otsailak 16, ostegun gizona
Eskoriatza: Urdelardero eguna
Erreterria: Azeri-dantza
Lezo: Trapujaleen jaitsiera
Bergara: Sorgin-dantza

Otsailak 17, ostiral mehea
Agurain: Porreteroak eta Sorgina
Segura: Hartzaren esnaera
Eibar: Kaldereroak

Otsailak 18, Inaute larunbata
Bakaiku: Kamarroak
Gallarta: Kalek-kaleko eskea eta dantzak
Olazti: Zamarroak eta Neskak
Galdako: Altsasuko inauteria
Cintruenigo: Zarramuskerroak
Hernani: Azeri-dantza
Donostia: Jardinzayen konpartsa
Durango: Surrandiak
Oñati: Oñatiko inauteria
Agoitz: Kaskaboboak eta Maskaridak
Amezketza: Talai-dantzariak
Irun: puska biltzea
Beasain: dantza-desfile herrikoia
Añorga: Dibertimendua

Otsailak 19, inaute igandea edo Zaldunita
Bera: Inude eta artzaiak
Zalduondo: Markitos
Amezketza: Talai-dantzariak
Abaltzisketa: Txantxoak
Aretxabaleta: Txino-dantza
Lesaka: Goitarrak
Lesaka: Zakuzarrak

Markina-Xemein: Zahagi-dantza eta Hartza
Mundaka: Atorrek
Azpeitia: Elegante eguna
Gernika: Marrauen soka-dantza
Antzuola: Sorgin-dantza
Donostia: Jardinzayen konpartsa
Irun: puska biltzea
Unanu: Mamuxarro gazteak
Garazi: Libertimendua
Iruñea: Iruinkokoa

Otsailak 20, inaute astelehena
Lesaka: Fraindarrak arraultze-eskean
Bera: Zingar-arraultze eskea
Goizueta: Puska biltzea baserrietan
Lantz: Miel-otxin, Ziripot, Zaldiko, Txatxoak eta Ferratzaileak
Burlata: Martingala

Otsailak 21, inaute asteartea
Arizkun: Sagar-dantza eta Hartza
Lantz: Miel-otxin, Ziripot, Zaldiko, Txatxoak eta Ferratzaileak
Goizueta: Zahagi-dantza

Lesaka: Fraindarrak arraultze-eskean
Laudio: Lezeagako sorgina
Unanu: Mamuxarroak
Altsasu: Momotxorroak
Burlata: Martingala
Agoitz: Kaskaboboak eta Maskaridak
Lekeitio: Estudiantina
Eskoriatza: Kukumarroak
Kanpezu: Toribio
Erreterria: Sardinaren ehorzketa
Arbizu: Txatamorroak, aittun handiya ta amin txikiya
Erratzu: Damak

Otsailak 25, larunbata
Sanfuentes: Kalek-kaleko eskea eta dantzak
Trapagaran: Carrascolindas
Saratsu: Porreteroak

Otsailak 26, igandea
Donapaleu: Libertimendua

Martxoak 11, larunbata
Hazparne: Libertimendua

Martxoak 12, igandea
Bunuzu: Oztibertimendua



FLORIDAN BADUTE LOA KENTZEKO MOTIBORIK: PENTSIO PUBLIKOEN DESAGERPENA

Euskal Herrian kaleak bete diren bitartean, AEBetan erretreten gaiaz izaten ari diren eztabaida oharkabeen pasa zaigu. Hango eskuin muturrak ere Gizarte Segurantzaren porrotaren mamua astindu du, eta senatari eta ordezkari errepublikarrak ari dira pixkanaka diskurtso oker hori zabaltzen, erretiro adina 70 urtera atzeratu eta pentsio sistema publikoa privatizatzeke. Floridan, halakorik eginez gero, milioika lagun pobrezia erabatekoan eroriko litzateke.

 URKO APAOLAZA AVILA

Baionako karriketan Emmanuel Macronen erretreten erreformaren kontra atera diren milaka lagunek, entzungo balituzte Floridan eskuinak darabiltzan argudio ia igualak AEBetako Gizarte Segurantzaren berehalako “kiebra” iragartzeko, pentsatuko lukete hau dena mundu mailako plan bat dela, funts pribatuen lobbyak euren etxe-orratz distiratsu batean egositakoa. Baina zein gara herritar koitaduok gaizki pentsatzen hasteko...

Oraingoz errealitate bakarra da nor bere ogitik ari dela zopak egiten gai honen inguruan. Parisen, Olivier Dussopt Lan ministroak “oreka” argudiatu zuen erretreta sistemari egin guraizekada justifikatzeko –erretiro adina 62 urtetik 64ra atzeratu eta kotizatu beharreko urteak emendatu nahi ditu Frantziako Gobernuak–. Honela jaso zituen *Le Parisien* egunkariak mandatariaaren hitzak: “Negoziaezina da. Bestela ez genuke etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizunik izango”.

Madriilen, kotizazio oinarriak progresiboki igotzea da Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzako ministro José Luis Escrivaren azken proposamena pentsioentzako, “belaunaldien arteko desorekak sistema tenkatzen duenerako prest egoteko”. Oreka edo desoreka, ideia berbera da zirku honetan: pentsio sistema publikoak errekarra bidean daude gizartearen zahartzearen ondorioz, eta hori ez gertatzeko, jubilatuek diru gutxiago izan

beharko dute kartilan hilabete hasieran.

Argudio makal horrentzat pentsiodunen mugimenduek eta sindikatuak badiutuzte alternatibak, esaterako pentsioak aurrekontuen bidez ordaintzea –AHTren obrak edo Leopard tankeak ordaintzen diren bezala–. Baina gaur gaurkoz, herrialde gehienetan unean uneko langileek ordaintzen dituzte erretiratu pentsioak, eta sistema hori jadanik jasangarria ez denaren apoa irentsi du askok, ez bakarrik gurean, baita Atlantikoaren beste aldean ere.

AEBetan badaramate denbora bat eztabaida bizian horrekin, eta adi jarraitu beharko genituzke hango ika-mikak, irakurle. 2022ko legegintzaldi erdiko hauteskundeetan –*midterms* izenez ezagunak– jadanik eztena sartu zuten alderdi errepublikarreko kongresistek, eta erretiro adina 67 urtetik 70 urtera –bai, ongi irakurri duzu– atzeratu beharko litzatekeela zioten euren hautes-programan. Alderdi Demokratikak berehala heldu zion amuari *#HandsOffMySocialSecurity* (“Ken eskuak nire Gizarte Segurantzatik”) traola biralizatuz. Errepublikar ordezkarien %75ak Gizarte Segurantza privatizatu eta zaurgarrienentzako Medicare mediku aseguruia ezabatu nahi dutela zioten.

AEBetako Ordezkarien Ganbera errepublikarren menpe geratu da. Baina, fundamentalisten babes faltagatik ganberako buru izendatzeko izerdiak bota dituen Kevin Maccarthyk, Etxe Zurian Joe Bidenekin egindako lehen bileran ez

du aipatu ere egin pentsioak murrizteaz ezer –AEBetako zorraren sabaia gainditzea saihesteko irtenbide bakartzat duten arren–. Donald Trump bezalako privatizatzaile peto batek ere eskatu du Gizarte Segurantza ez ukitzea. Herritarrei zuzenean eragiten dien gai sentibera da, bistan denez, eta eskuina kontu handiz ari da sarea pixkanaka ixten, amuarraina bere diskurtsoan harrapatzeke.

ESTRESATU GAUZA INPORTANTEEZ

“Estresaturik zaude okerreko gauzengatik. Floridatarrek Gizarte Segurantzaren ‘konponketarekin’ gehiago dute galtzeko”. Izenburu deigarri horrekin argitaratu du zutabea Frank Cerabino kazetariak Floridako *The Palm Beach Post* egunkarian, guri Alternet.org ezkerreko ataria- ren bidez iritsi zaiguna. Cerobinok dio herritarrek beste eztabaida batzuetan nahasita dabilatzala –ez garrantzi gutxiagokoak, transen eta beltzen eskubideak tarteko–, baina arazo askoz larriago baten aurrean daudela: eskuinaren eten- gabeko esfortzua Gizarte Segurantzari hesteak ateratzeko.

Eta eskuinaren horzkdak izen bat du Floridan: Rick Scott. Estatu horren ordezkaria da AEBetako Senatuan –lau milioi boto lortu zituen–, eta Gizarte Segurantzaren programa suspenditu behar dela defendatu du behin eta berriz, “porrot eginda” dagoelako. Scottetek *Rescue America* (“Amerika erreskatatzea”) izeneko hamabi puntuko plana dauka esku ar-

**RICK SCOTT**

"Nire aberria berreskuratu nahi dut, eta zuk?", dio senatari floridarrak bere hauteskunde kanpainako promozio bideoan. Scott AEBetako Senatuan errepublikarren buru izateko hautagai da, eta bere proposamen nagusietako bat da AEBetako Gizarte Segurantzza pribatizatu eta Medicare aseguru medikua ezabatzea.

tean Senatuko hurrengo hauteskundee-tarako, bere ideologiaren margolan eder bat: haurrek eskolan bandera egunero musukatzea, poliziarri diru gehiago ematea, Mexikoko mugako hesia amaitu eta Donald Trumpen izena jartzea, gizon eta emakumeen arteko bereizketa... "Abisatzen dizut: plan hau ez da bihotzez ahulak direnentzako", dio Scottek bere webguneko agur mezuan.

Cerabinok dioenez, senatariak herri-tarrari sinetsarazi nahi dio Gizarte Segurantzako funts fiduziaroa 2034 urtetik aurrera "lurrundu" egingo dela. Baina administrazio federalak emandako datuen arabera ez da horrela: aurreikuspenen arabera 2034an funtsa agortzen hasiko bada ere, soilik langileek egindako ekarpenekin, pentsioen %78 ordaintzerik izango da oraindik. Aldiz, Ordezkarrien Ganberako errepublikarrek eskatzen

duten neurri nagusia ezarriko balitz –erretiro adina 67 urtetik 70era atzertzea–, "herritarrek jubilazioagatik %23 gutxiago kobratuko lukete", azpimarratu du kazetariak.

Horretarako Matt Bruenig blogari ezagun eta People's Policy Project (Herri Politikarako Proiektua) ezkerreko *think tank*-aren sortzaileak emandako datuak ditu. Bruenigek bere erakundearen webgunean dio erretiro adina igotzea eta Gizarte Segurantzaren diru gabe geratzea bi ideia lauso direla, "politika berbera deskribatzen dutenak". Blogariaren ustez legea moldatu daiteke, Gizarte Segurantzaren diru gabe geratuz gero, pentsiodunei automatikoki murrizketak egin beharrean, aberatsenei zergak automatikoki igotzeko; "polita litzateke", dio.

Bruenigek garbi du atzean zer dagoen: "Gizarte Segurantzari egindako ekarpe-

nen dirua hartu eta Wall Street-i entregatu nahi zaio"; alegia, pentsio funtsen lobbyek pribatizatu egin nahi dutela.

Itzul gaitetzen Cerabinok bere zutabea dioenera. Ikerketa batzuen arabera estatubatuarren herenak Gizarte Segurantzaren 62 bete bezain pronto kobratzea aukeratzen du, nahiz eta horrek pentsio txikiagoarekin penalizatzen dituen. Batez ere ikasketa maila baxuagokoak eta nekazal eremukoak dira: ez dute beste erre-mediorik, ezta pentsio-plan pribatueta inbertitzeko dirurik ere. Kazetariaren arabera, Floridan odoltsua da egoera: "Gizarte Segurantzari gabe, adinekoen %37,8 pobreziaren mailaren azpitik biziko litzateke". Gaur egun 65 urtetik gorako 1,5 milioi floridar pobre daudela kontuan edukita –biztanleriaren %6 inguru– sei bider jende pobre gehiago lirateke. Eta horiek ez ditu inork erreskatatuko. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Luzio Tabar

TRAPUKETARIA



MUNDUKO PERTSONA GUZTIENTZAT POSIBLE EZ DENA PRIBILEGIOA DA, EZ ESKUBIDEA



50 urte bete berri dituzte Iruñeko Arturo Campion euskaltegiak eta Nafarroako Emausko Trapuketariak, eta bietan buru belarri lanean Luzio Tabar, lehenbizi euskaltegian eta trapuketariekin orain. Bietan ezaugarri komun asko: biak herri ekimenak, behar sozial bati erantzuna emateko sortuak eta bietan pertsonak jartzen dira erdigunean. Errespetua eta adeitasuna denontzat, horiek dituzte abiapuntu.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Otsagabian sortu eta noiz arte izan zinen herrian?

Herrian ikasteko aukera izan nuen 14 urterekin Iruñera etorri arte. Haran osorako ikastetxe bat sortu zuten Otsagabian, eskola publikotik kanpo, batxilergoa bertan egin ahal izateko. Matematika irakaslea eskolako maisua zen, musikakoa herriko organista, apaiz batek latina ematen zuen eta beste batek erlijioa, gure aita herriko albaitaria zen eta fisika eta kimika ematen zituen. Herriko ekimena izan zen, baina haran osoko ikasleei irekia. Ondoren hirira etorri nintzen, Maristetara, eta gero Opuaseko unibertsitatean kazetaritza ikasi nuen.

Azken urtean nengoela Arturo Campion euskaltegian hasi nintzen irakasle gisa.

Eta euskara noiz ikasi zenuen?

15 bat urterekin Jose Miel Barandiaranen hitzaldi batera joan nintzen eta ondoan zegoen neskak galdetu zidan ea euskara ikasi nahi nuen. Esan zidan taldea eta tokia lortuz gero, berak irakaslea bilatuko zuela. Maristetan fraide jator batek gelatxo bat utzi zigun eta neskaren anaiarekin hasi ginen euskara ikasten. Hurrengo kurtsoan Arturo Campion euskaltegira joan nintzen eta han ikasi nuen, kazetaritza ikasketak egin bitartean.

Ikasketetako azken urtean euskaltegiko ikaslea nintzen goiko mailan eta, aldi berean, klasea ematen hasi nintzairen lehen mailakoei. Garai hartan Sagrario Alemanek zuzendaritza hartu zuen eta orduan Arturo Campion gau eskolatik euskaltegi izatera pasa zen. Didaktikaren aldetik jauzi handia eman genuen, lanaldia luzatu eta beste toki batzuetan klaseak ematen zituztenekin harremanetan hasi ginen, nolabaiteko koordinazioa sortuz. AEK ez zen oraindik, hemen bederen.

KEM-MOC mugimenduan, ibili zinen. Aurre-intsumisioaren garaia izan zen, ezta?



Luzio Tabar Purroy

OTSAGABIA, 1960



KEM-MOC mugimendu antimilitaristako kidea izan zen gaztetan, eta Eguzki Irratia abian jarri zuten gazte ipurterre haietako bat. Arturo Campion euskaltegiko irakasle aritu zen 20 urtez eta orain beste horrenbeste denbora darma Emausko Trapuketarietan lanean. Kazetaritzan lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatean.

Bai. Zerbitzu militarri eragozpena egin genion lehenbizikoei luzapena ematen ziguten automatikoki eta lege berria atera zutenean amnistiatu egin gintuzten. Bagenekien estatua zerbitzu militarren partez ordezeko zerbitzu sozial batzuk antolatzekotan zebilela eta halakorik abiatzeko inolako estaturik ez genuela behar erakusteko, zenbait eragozleren artean eskola-tailer bat sortu genuen Txantrean, Burdintokin. Emausko Trapuketariak eman ziguten dirua hori martxan jartzeko eta auzoko hainbat jubilatuk ofizioa erakusten zieten lan egin nahi zuten gazteei. Orain mundu guztiak dio eskola hori izan zela Nafarroako Gobernuak gerora sortu zituen eskola-tailerretarako eredua.

Ekintzaile hitza entzun eta berehala etortzen zaigu burura bere negozioa muntatu eta dirua irabazi nahi duen pertsona. Guk egiten genuena –Burdintoki, Arturo Campion, Emausko Trapuketariak...– ez zen gure negozio propioa dirua irabazteko, baizik eta ikusten genuen behar sozial bati erantzun bat emateko. Alde horretatik antzekotasun handia ikusten dut Campion eta Emausen artean. Ekintzaileak ginen, zailantzarik gabe.

Aldarrikapena eta lan praktikoa, biak dira ezinbestekoak?

Hala da, baina egun ikusten da arlo sozial gehienetan badi-rela mugimendu batzuk aldarrikapenarekin erabat lotuak eta beste batzuk, aldiz, soilik egunerokoan lan egiten dutenak. Salbuespenak oso gutxi dira: euskararen arloa edota errefuxiatuekin eta etxegabetzeetan egiten den lana, bi horietan aldarrikapena eta eguneroko lana bai doazelako batera. Elikagai bankuek, adibidez, janaria biltzen dute baina hor ez dago inolako aldarrikapenik. Antimilitarismoak, bere aldetik, aldarrikapenetara mugatzen du bere egin beharra. Ekimen praktikoa batzuk karitatearekin eta elizarekin lotu izan dira, eta gorriok aldarrikatu besterik ez genuen egiten. Niri akats larria iruditzen zait. Pertsonen arazoei modu praktikoa erantzuten saiatu behar da eta, aldi berean, argi esan zer aldatu behar den horrelako kasu gehiago ez gertatzeko. Aldarri-

katzea beste ezer egin gabe, *progre*a izatea da. Baina zer desberdintasun dago eskuindar eta *progre* baten artean? Antzeko tokietan egiten dugu lan, antzeko soldata kobratzen dugu, antzeko tokietara joaten gara oporretara, antzeko autoak izaten ditugu... bizitzeko eran ez dago alde handirik eta hori faltsukeria da. Ez dut esaten jendearen errua denik, baina askotan ez gara kontziente kapitalismoak nola harrapatzen gaituen.

Emausen aldarrikatzaileak zarete?

Maila apalean. Guk konfrontaziora ez dugu inoiz jotzen. Hori oso garbi dugu. Neurri handi batean gure erreibindikazioa testimoniala da, praktikan erakutsiz gauzak oso bestela egin ahal direla. Hemen, egun, 300 lagun gara. Soldata berdintasuna dugu. Zuzendariek eta sartu den azken langileak orduko berdin kobratzen dute. Horrekin aldarrikatu nahi dugu denok ardura berbera dugula: dagokiguna ahalik eta hobekien egitea. Campionen ere soldata berdintasuna genuen.



Batzuek diote migratzaileak arriskua direla euskararentzat. Askoz arriskutsuagoak iruditzen zaizkit euskara ikasi nahi ez duten bertakoak"

Gutxiago lan egin, denok lan egin ahal izateko. Zu beti izan zara lanaren banaketaren aldekoa.

Bai. Azken hamar urteotan 100 lagun gehiago gara trapuketarietan. Urtetik urtera gora doa lan-

kide kopurua. Eta orain lan jardunaldiaren murrizketa proposatu dugu, jende gehiago hartu ahal izateko: denok 32 ordu eta erdi lan egiten ditugu 1.100 euroko soldata gordinaren truke, hamalau pagatan. Aski da bizitzeko? Agian ez. Nafarroan batez besteko soldata 2.500 eurotik gora dago, baina hemen astakeria ez da gure soldata txikia, gizarteak duen bizi maila baizik.

Munduko pertsona guztientzat posiblea ez dena pribilegioa da, ez eskubidea. Oporrak izatea bai, baina oporretara joatea ez da eskubidea, adibidez. Eta gainera, eskubideez asko hitz egiten dugu, eta bete beharrez?

Gure hainbat lankidek lantxo osagarriak bilatu behar izaten dituzte hemendik kanpo, baina hemen Emausen dirua bezain garrantzitsua da taldeko partaide izatea, harremana, errespeta eta atsegintasuna.



Hemen dauden askok tratu txarrak ezagutzen dituzte?

Ia 300 lankide gara, 34 herrialdeetakoak. %70ek arazo bereziak dituzte migratzailer izateagatik, kartzelan egonak izateagatik, droga arazoengatik edota egituratu gabeko familietakoak izateagatik. Batzuek uste dutenaren kontra, hemen edozein lantegitan baino arazo gutxiago dugu, pertsona hauek ez baitaude ohituta normal, hau da, ongi tratatuak izaten eta hala tratatzen dituzunean automatikoki sartzen direlako giro on horretan. Eta gainera, pertsonen gaitasuna landu eta areagotu egiten da giro aproposa sortuz gero. Harritzekoa da zer nolako erantzun positiboa ematen duten guztiek.

Emausko trapuketarien 50. urteurrena ospatzen ari zarete. Nola hasi zen?

Abbé Pierre fraide frantziarrak sortutako ekimena da. Familia onekoa zen, nazien kontra borrokan ibilia eta Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan parlamentari hautatu zuten. Irabazten zuen diruarekin etxe bat hartu zuen Frantzia eta Alemaniako gazteak elkartzeko eta herrialdeen arteko harremanak berregiten hasteko, baina suertatu omen zitzaion bere buruaz beste egin nahi zuen gizon batengana joatea, eta proposatu

zion bera bezala egoera txarrean zeuden beste pertsoneri laguntzera joateko berarekin. Horrela hasi ziren etxegabeak etxe horretara eramaten, eta lehen komunitatea sortu zuten. Parlamentari izateari utzi zionean dirurik gabe gelditu, eta or-



Azken hitza

NEGOZIOA

“Gizarteak nahi ez dituen eta gizarte hau nahi ez dugun pertsonok, gizarteak nahi ez dituen gauzetatik gure bizimodua ateratzen dugu. Gero eta pertsona gehiago daude gizarteak nahi ez dituenak edo baztertzen dituenak, gauzak, aldiz, gero eta gutxiago dira, orain, hondakinen inguruan negozio handiak daudelako”.

duan hasi ziren jendeak botatzen zituen hondakinak biltzen berriro saltzeko.

Nafarroan, 1972 baino lehen Portugalgo ijito batzuk txabola batzuetan bizi ziren Barañainen, eta elizaren inguruko talde bati bururatu zitzaion horri nolabaiteko konponbidea eman behar zitzaiola. Frantziako Emausko erreferentzia bazutela eta, bururatu zitzaion bilketa bat egitea Iruñean sosa ateratzeko. Gauzak bildu eta salgai jarri zituzten orain Corte Inglés dagoen tokian, eta hortik milioi bat pezeta atera zuten. Horrekin Santa Lucía herrixka sortu zuten.

Han bizi izan ziren batzuk egun gure lankideak dira. Bilketa eta salmenta hori mantendu zuten elizaren inguruan, 1978an egungo zuzendarietako bat, Jose María García Bresó, iritsi zen arte. Bera Bilboko Emausetik zetorren eta hemen ere komunitate bat sortu nahi zuen. Boluntarioekin harremanean sartu eta Villa Simona etxean ezarri zuten komunitatea. Kamioi txiki bat lortu, eta biltzen zituzten gauzak salduz hasi ziren bizitzen.

Handik gutxira, Iruñeko Udalak Lorea izeneko talde bati eman zion lehendabiziko zabor bilketa berezitua antolatzeke enkargua. Loreakoak harremanetan jarri ziren trapuketariekin eta biek batera jarri zuten martxan zerbitzua 1982an. Ermitagaña auzoan egin zen estatuko era honetako lehen bilketa. Normalean Emausko komunitateek ez dute administrazioarekin lanik egiten, baina hemen bai, zerbitzu kontratuak ditugu hainbat mankomunitaterekin eta etxek etxe biltzen ditugu altzariak eta bolumen handiko gauzak, etxetresna elektrikoak bildu eta konpontzen ditugu, arropa eta zapatak... Zabor ontzien aldamenean utzitako bolumen handiko gauzak ere gauero biltzen ditugu, eta horrela hiria garbitu. Nafarroa aitzindaria da horretan.

Eta komunitatea?

Belzunze herrian dago eta bertan 25 lagun bizi dira. Emausko bihotza da, hazia, hortik hasi baitzen dena. Taldearen eta pertsonen garapenerako eskola izatea du helburu.

Ekonomia zirkularra proposatzen duzue zuek.

Bai, baina egiazki ekonomia zirkularra ez da zirkularra, beti da beheerantzko espirala, gauza bat erabiltzen duzun bakoitzean zerbait galtzen delako. Susmoa dut *ekonomia zirkularra, garapen jasangarria* bezala, lelo huts bilakatuko dela denak berdin jarrai dezan. Agintariek ez dute aldatzeko

Nik hala ikusten dut. Mundu osoa hirugarren mundu bihurtzeko prozesuan dago, nire ustez. Pobre eta aberatsen arteko arrakala hirugarren munduaren ezauzgarria izan da, baina gurean ere gero eta arrakala handiagoa dugu. Bigarren pausoa pandemia izan zen. Ez genuen uste halakorik gertatzen ahal zenik geurean, baina iritsi zen. Eta hirugarren pausoa gerra da. Gerrak urrutikoak ziren, baina orain Europan dugu. Eta horri gehitzen badiozu klima aldaketa, krisi energetikoa, lehengaien agortzea, biodibertsitatearen

Bada oso gustuko dudan idazle eta filosofo bat, Jorge Riechmann, eta berak dio zalantza dela XXI. mende honetan munduko biztanleriaren %50, %80 edo %100 hilko ote den. Haur txikiak ditugunontzat hobe ez pentsatzea. Ez naiz baikorra, baina, hala ere, eguneroko aurrera egin behar dela uste dut. Hil arte bizi, eta esperantza daukat noizbait erreakzioa iritsiko dela.

Bizirik jarraitu ahal izateko komunitate txikiak berriro indartuko dira. Komunitatea sortua duten esparruek izanen dute aukerarik handiena etorkizun beltzari aurre egin ahal izateko, auzo kontzeptua duten auzo horiek, gurea bezalako komunitateek...

Bai, euskarak komunitatea sortzen duela-
ko. Nik uste dut euskarak etorkizun opa-
roa izanen duela komunitaterako lotura
delako. Hori bai, etortzen diren horiek
euskara maitatzea nahi badugu, euskal-
dunak maite beharko dituzte lehenbizi.
Tratua izan behar dugu haiekin.

Batzuek diote migratzaileak arriskua direla euskararentzat. Askoz arriskutsua-

Eskatzea libre da, baina errazago lortzen da zerbait emanda. Eta gainera, guri dagokigu aldez aurretik ematea, guk dena dugulako eta haiek deus ez. Bete-beharrik gabeko eskubideak oso gutxi dira eta gu ohituta gaude dena eskubide gisa aldarrikatzera.

Haien jatorrizko herrietan ohituta badaude hizkuntza desberdinak erabiltzera, haientzat erabat normala da euskara aditzea. Aldiz, Erdialdeko eta Hego Amerikako jendeak gaztelaniarekin du atxikimendu handia, bertako hizkuntzak mespretxuz ikusten dituzte orokorrean, eta ez dute ulertzen nola guk, gaztelania izanda, euskaraz egiten ahal dugun. Batzuentzat zein besteentzat arrunta eta naturala da euskara entzutea, euskaldunon artean hemen beti euskaraz aritzen garelako. Gehien gehienek ez dute euskara ikasi, baina badakit gure lankide askoren seme-alabak D ereduan ari direla ikasten. ●

ARGIA Otsailak 12, 2023



Iritziak

Euskal Herriaren funtsa eta paperezko estatua



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Errebisionismoa modan dago. Joera suntsitzaile hori piztu da behinola abertzale ziren alderdi-erakunde batzuetan, eta sitsaren antzera zulatzen ditu guztion etxe honen zutabeak. Historia hurbilaren berrirakurketa ergela proposatuz, adibidez, eta kaiku urdinari taumaturgiatzko propietate magikoak iradokiz frankismo latzaren aurkako matxinadan. Edo beste inguru batean, euskal nazioaren funtsezko oinarriak gutxietsi eta paperezko euskal estatua-ren promesa *naif* eta sinestezina formulatuz, zertara eta “hobeto bizitzera” bideratua.

Hauteskunde atariko ipuin barregarri/negargarriak nagusitu dira errelato publikoan, eta euskaldun koitaduak ez daki zer pentsatu ipuin fantastikoen kontalari bihurtu diren politikari eta esatariez.

Esaten zaigu Espainiako Estatuko Gobernua den koalizio progresista aukera leihoa dela, eta bertara doazen euskal alderdien ordezkariak, alderdi bateko zein bestekoak, behin eta berriro lotzen dira akordioetan eta botoetan gobernu espainiarreko partaideekin, eta gobernu horren jarraipena ziurtatzen dute. Baina, bitartean, gobernu eta estatu berak betiereko izotzean lotzen dituzte duela jada mende erdi adostutako oinarritzko autonomia lege eta akordioak. Berdin antzera, Poliziak, epailek eta zigorrak izozten ditu anai-arreba katalanen izpiritu askeak eta prozesu askatzaile demokratikoak. Epaile berek izozten dute

Hauteskunde atariko
ipuin barregarri/
negargarriak nagusitu
dira errelato publikoan,
eta euskaldun
koiaduak ez daki zer
pentsatu

ere gure euskara, Gaztela zaharreko hizkuntza XXI. mende honetan gure lurreen derrigortzen diguten bitartean. Anakronia lazgarriagorik, hemen eta orain gaztelera inposatzearena baino!

Zer abantaila ematen digu, bada, zorroneko aukera leihorrek? Hori galdetzean, eskuin muturraren mamua erakusten digute gure ipuin kontalariak, txotxongiloen antzerkietan bezala. Zer pentsatu behar dugu, orduan, betirako morrontzan mantendu behar garela euskaldunok Espainiako Estatu horren gobernari hauei men eginda, bestela ordezkariak are okerragoak direlako? Ez daukagu makala!

Euskaldunok ez gaude ipuinetarako, eta hauteskundeak baino urrunago ere begiratu beharra dugu. Euskal Herria nazio demokratiko antolatua eta osatua izatea lortu behar dugu, azkenaldian gure politikariak, hurbilera begiratu

beharrez, hori ahaztua eta baztertuta duten arren. Naziogintza aktiboa behar dugu Euskal Herri osoan, zabal, luze eta sakon. Euskal naziogintzak ukitzen duela gure nortasunaren muina bera. Eta euskal naziogintza krisi larrian dago, egun. Krisian kanpo faktoreen kausaz, estatu menderatzaile biek asimilazio prozesua bizkortu egin dutelako, baina baita barne-faktoreen kausaz ere, euskal herritar askotxok asimilazio horren onarpen aktiboa edota pasiboa burutzen dutelako, nortasun propioa trukaturik. Eta, horrez gain, alderdi eta erakunde abertzale ohien integrazio progresiboa gertatzen ari delako Espainiako eta Frantziako estatuen erakunde eta dinamiketan. Gainera, jokabide horren “justifikazio teorikoa” eta legitimazioa agertzen dute.

Ipuinak ipuin eta bide taktiko mende horiek bideitsu, euskaldunok naziogintza berritua piztu behar dugu Euskal Herri osoan. Orain arte egindako egoera honetara ekarri bagaitu, bistan da proposamen berriak behar ditugula, teoriatik praktikara. Kalibre handiko berrantolaketa behar du euskal naziogintzak bere osotasunean. Gure indarrak zerrendatu, euskal naziogintzaren alde diharduten guztiak saretu eta elkarlanean jarri. Euskal kulturaren polisistema osatu zientzia, arte, lan eta administrazio atal guztietan, euskara ardatz. Euskal naziogintza berria abiatu dugu, zabalik da eta lan beregaina egiteko bidean da. ●

Meloia



AMANCAY GAZTAÑAGA
SORTZAILEA



ANTTON OLARIAGA

Meloi bat, meloi bat irekitzera nator, sekulakoa da, handi-handia, handiegia.

Meloi hau da... MELOIA. Nik, egia esan, ez ditut meloiak gustuko, beraz, ez dakit zergatik hartu dudán gaurkoan meloi hau irekitzearen ardura... baina hemen gatoz: ni eta meloia.

Sasta, labana sartu diot... eta barruan... zera ikus daiteke: euskal klasisismoa, euskaldunon klasisismoa, euskaldunak ere bagara klasistak, euskaldun klasistak.

Esan dizuet meloi hau sekulakoa zela. Handia da handia, handiegia, eta neuk nahiz eta gustukoago ditudan sandiak, hemen nator meloi honekin.

Guretzat inoiz ez da ondo edo ondoegi, gehiago nahi dugu beti. Agian ez didazue ulertzen, normala, trakets nabíl, baina lasai, oraintxe ausartuko naiz meloiari zati bat moztu eta postreko platertxo batera ateratzen.

Labanarekin meloiaren parte urtsuena hartu dut, hor duzue platertxoaren gainea. Zati horrek honela dio: euskararen zaindari diren/garen sasi-intelektual kulturetak. “*Dios*, ez dakit zergatik nabílen honetan”.

Ze klasistak garen, benetan, eta hementxe nire afirmazioaren arrazoia: zergatik sentitzen dugu euskara ikasten ari den bati DENA zuzentzeko beharra? Ziur badagoela euskaraz ikasten ari den norbait zure inguruan. Imaginatu pertsona horrek urteak daramatzala ikasten eta oraindik ez duela ongi hitz egiten. Zenbat aldiz zuzendu diozu esaten duena berak ESKATU gabe? Pentsatu. Nola apurtu lezake persona horrek hitz egiteko orduan duen konplexua, nola jolastu lezake persona horrek hizkuntzarekin, DENA zuzentzen badiogu?

Jarri zaitez egoera honetan: zenbat aldiz hitz egiten duzu ingelesez egunean? Zenbat aldiz esaten duzu kanpoko talde baten izena eta film edo serie baten izena beste hizkuntza batean? Zure/gure azen-tu penagarriaren kontzientziarik baduzu? Zer gertatuko litzaizuke ondokoak, une oro, esan duzun hori zuzenduko balizu?

Oporretara joaten zara Landetara eta zure frantses barregarria probatu nahi duzu. Niri behintzat ez zait inoiz gertatu denda batean sartu eta momentuan bertan sasi-intelektual batek nire gramatika edo azentuazio penagarriari buruzko komentario bat egitea. Orduan, zergatik

egiten dugu guk hori ETENGABE, konturatu gabe, ia ohitura gisa? Tradiziotzat dugu zuzenketarena, edozeini-edozeinen aurrean-edozein tokitan. Orduan, nola nahi dugu ikasten hasi diren horiek konplexuak alde batera utzi eta ikasten jarraitzea?

Orain, gehitu iezaiozu ekuazioari ikasten ari den hori migrantea dela. Begiratu iezaiozu zeure buruari zuzenketa horietako batean. Bai, paternalismoa gehitu diozu gramatika klase inprobisatu horri, eta are tamalgarriagoa da sortu duzun egoera. Txalo bero bat.

Esan dizuet hasieran meloi hau terriblea zela, astuna, handia eta urtsua... eta gu hortxe gaude, erdi-erdian.

Kaka, tokirik gabe geratu naiz, baina ezin azken hitz hauek utzi gabe joan. Euskaraz ikasten ari den batek zerbait gaizki esaten badu eta ez badizu eskatzen zuzentzeko, bi aukera dituzu:

1. Ez esan ezer. Lasai, ikasiko du edo ez, ez dago zeure esku, ez zara bere irakaslea.

2. Ez esan ezer. Erantzun iezaiozu normal. Hizkuntzetatik haratago bada-gu pertsonok gure artean komunikatu ahal izateko mekanismo unibertsal bat: besteak zer dioten ulertu nahi izatea. ●

Megairuzurra



**IÑAKI BARCENA
HINOJAL**
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Mega hitzak milioi bat esan nahi du. Milioi bat unitate. Aspaldiko partez gure eztabaida ekosozialetan topatzen dugu, eta garai edo koiuntura historiko honetan megaproiektuak, megameatzarritza, megazentral energetikoak, megabeletxeak, megahiriak, gure sake-lako telefonoen megak eta instalakuntza elektrikoan megawatioak eguneroko ogia bihurtu dira. Dena doa handitasunera, ahalik eta gehien *"citius, altius, fortius"* – azkarrago, altuago, indartsuago – erromatarren lelo olinpikoa jarraituz, Erromako kolapsoa kontutan hartu gabe.

Megazentral energetikoak. Espainiako Parlamentuak onartu berri duen Errege Lege-Dekretuan 20/2022, 50 megawatio baino gehiagoko energia berriztagarrietako zentralak ez dute ingurumen inpaktuaren ikerketarik behar. Halaxe dio dekretuak: "Energia-iturri berriztagarrien hedapen azkar batek egungo energia-krisiaren ondorioak arintzen lagun dezake, Errusiaren ekintzen aurkako defentsa bat sortzen baitu... Premiazko eta salbuespenezko egoera energetikoa dela eta, estatu kideek aukera izan behar dute Batasunaren ingurumen-legerian ezarritako ebaluazio-betebehar jakin batzuen salbuespenak sartzeko...".

Arestian, Tapia Legeak 50 megawatio baino gutxiagoko zentralak egin zien erreferentzia, maila autonomikoan kudeatatu

ahal daitezkeenei, gauza bera adierazteko. Orain, estatu zentralak hordagoa bota du megazentral hauetan kontrol herritarrik edo ingurumen babesik oztopo moduan ez izateko. Lege hauek logika demokratikotik urrun daude, eta udaletxeak eta tokiko biztanleak soberan ditzuzte. Lurraldea bai behar dute okupatu, baina besterik ez.

Errusia da aitzakia. Aldiz, COVID-19ren ondoren Europako Batasunak sortu dituen Next Generation funts ekonomiko erraldoiek, zor publikoa inoiz baino gehiago handituko dutenak, aukera paregabea dira meganegozio energetikoetan inbertsioak egiteko. Horrela soilik uler daiteke megazentral hauen oldea, *As bestas* eta *Alcarrás* filme bikainetan ikusi ahal izan dugun moduan.

Trantsizio energetikoaz askok egiten dute berba, baina ez dute bera esan nahi, batzuetan kontrakoa baizik. Guretzat desazkundearen bidetik etorriko dena nahitaez, beste eragile politiko eta ekonomikoentzat aukera itzela izan daiteke denon kontura negozio berriak egiteko.

Lewis Mundford-ek megamakinaren aurrean erreboltaren alde egin zuen, erresistentzia, arbuioa eta erretiratzea aldarrikatuta. Horren bidez, gizabana-koek norberaren autonomia eta gizatasunetik eratorritako nahiak eta hautuak lortu ditzakegu. Horretan diragugu!! ●

Indarkeria ikusezina



**ARANTZA
GUTIERREZ PAZ**
EHU-KO IRAKASLEA

Maiatzean Hego Euskal Herrian izango diren hauteskundeei begira daude alderdiak dagoeneko. Ia egunero hautagai baten aurkezpena dugu, talde batek edo besteak izango duen alkategaiaren iragarpen publikoa. Berdintasun Legeak 2007an ezarri zuen generoen parekidetasunaren beharra zerrendak egiteko orduan, eta horrek emakumeen bilaketa eskatzen du, baita emakume zerrendaburuena ere.

Zaila omen da lehenengo postuetan joan nahiko luketen emakumeak aurkitzea; ez dute nahi, antza. Konbentzitu nahian, presioa (berriz ere) haiengan jartzen da, ahaldundu daitezen, urratsa eman dezaten. Baina lagun batek duela

gutxi galdetu zidan bezala, zertarako? Patriarkatuaren atzaparretan akabatu ditzaten? Neurtzeke dago emakumeek zenbat legealditan irauten duten kargu batzuetan, gizonak zenbatetan erreplikatzen duten hautagai moduan, eta bereziki horren atzetik dauden arrazoiak zein diren.

Foro publikoan ari diren emakume talde batek duela gutxi salatu duen indarkeria presente dago politikan. Batzuei kostatzen zaie genero alborapena ikustea, gizonen (batzuen) aurka eragindako biolentzia ere eragindakoa baita. Baina gauza bat argi dago, beharbada ez dute (zu) emakume izateagatik eragiten, baina bai (haiek) gizonak direlako. ●

Basapiztiak



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Ez omen dira zinemarako garairik onenak, baina Rodrigo Sorogoyen-en *As bestas* pelikula bere bidea egiten ari da, Donostiako Zinemaldian ikuslearen saria jaso zuenetik. Espainiako Estatuan, sarrera-erosleak erantzuten, kritikak laudatzen eta garaikurrak metatzen ari da, lehengo irailean hasitako ibilbideari eman zionetik. Galizian, ordea, hotzago egin zaio harrera.

Herrialde horretan kokatu du Sorogoyenek bere lana. Galiziako landa-eremuan, Galizia sakonean. Galizieraz mintzo den Galizian. Ez dute, ordea, hala egiten, frantsesez eta gaztelaniaz baizik, filmeko heroiek. Nola ez begiko izan, inguruaren ederrak liluraturik, halako herrixka batean etxea erosi eta bertatik laborantza ekologikoari ekin dion bikote ameslari, maitemindu, liburu zalea. Eta nola ez begin hartu filmeko gaiztoak, hain bikote zoragarriaren amesgaizto bilakatzen diren auzoko pitzatuak, herrixkako betiko bi anaia mutilzahartuak, behitegian edo larreanazienda txar batzuk gobernatzeko ari ez direlarik, denbora ostatuan edaten ematen dutenak. Basakeria galegoz mintzo baita *As bestasen*.

Basakeria galegoz
mintzo da 'As bestas'en.
Eztabaida ez da luzatu.
Galiziar aunitzek
ez dute laket izan
galiziartasunaz ematen
den irudia

Eztabaida ez da luzatu. Galiziar aunitzek ez dute laket izan galiziartasunaz ematen den irudia. Filmean anaia zaharrenarena egin duen Luis Zahera antzezlea bera gogaiturik agertu da he-dabideetan. Itxuraz, zuzendari espainiarrek *galegoarena* egiteko baizik ez dute deitzen, erran nahi baita, narkoarena edo basaburuar ilun eta basarena.

Ezaguna denez, benetako gertakari batzuetan oinarritu da Sorogoyen bere istorioa ontzeko. 2010ean, *As bestasen*

agertzen diren bezalatsuko pasarteak gertatu ziren Ourenseko herrixka batean. Zuzendariak, dena dela, ez die beti benetako gertakizunei orpoz orpo segitu. Konparaziorako, egiazkoan protagonistak ez ziren frantsesak izan, nederlandarrak baizik. Istorio unibertsal bat aurkeztu nahi bazuen –zer zine zuzendarik ez du nahi istorio unibertsal bat aurkeztu?– neke handirik ez zion emanen bertze nonbait kokatzeak.

Izan ere, *As bestasen* kontatzen dena eta oinarrian duena bertze nonahi gerta zitekeen. Euskal Herrian ere bai, neke handirik gabe. Asmatzen duzue? *As bestasen* ordez, *Basapiztiak*. Film bat, non atzerritar puta batzuek defendatzen duten ama lurra, ekologia eta jasangarritasuna, eta baserritar jatorrak, aldiz, beren mendiak enpresa eoliko transnazio-nal bati saltzeko prest dauden, azien-dak kendu eta Azpeitian, Durangon edo Elizondon –demagun– taxi bat paratze-ko adina diruren truke. Film bat, non basakeria euskaraz mintzo den.

Ez luke eztabaida tikirik piztuko gure artean. Ikusleen saria, bederen, ez luke hartuko Donostian. ●

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822


NAFARROA
848 870 917

www.bertoko.eus

Euskara ofiziala ez den lekuetan,
euskara ikasten ari diren

85 LAGUNEK

jasoko dute  **ARGIA** doan



**ZUK ERE, LAGUNDU
EUSKARA ZABALTZEN
EGIN ZAITEZ  ARGIAkoa**
www.argia.eus/eginargiakoa

Egia, aitortza eta erreparazioan jarraitzea eskatzen dute torturatuek

Kriminologiaren Euskal Institutuak (KREI) urtarilaren 9an aurkeztu zuen Iruñean, Nafarroako Gobernuaren enkarguz, 1979 eta 2015 arteko tortura kasuei buruzko ikerketa: 532 tortura kasu egon dira eta 434 pertsonari eragin diete. Institutuak ikertzen jarraitzen du eta, eskuartearen datuen arabera, aurreikusten dute tortura kasuak 825 inguru izango direla.

 XABIER LETONA

Nafarroako txosten osoa otsailaren 7an aurkeztu zen Nafarroako Legebiltzarrean, erreportaje hau kaleratu ondoren jada. Han aurkeztutako datu orokorrak eta lerro hauek ematen direnak, baina, antzekoak dira. 2019an KREIk 1960-1978ko epeko tortura kasuak aurkeztu zituen, orduan ere foru gobernuaren enkarguz: 153 herritarrek jasandako 164 tortura kasu antzeman zituzten (herritar batzuk birritan edo gehiagotan torturatu zituzten). Bi ikerketako datuen arabera, Nafarroan 1.068 tortura kasu ateratzen dira.

Herriz herri egiten ari den tortura kasuen bilketan oinarrituta, Nafarroako Torturatuen Sareak ere aipatu izan du milatik gorako kopurua. KREIren bi ikerketak Ana Ollok zuzendutako Herri-tarrekiko Harremanetako Departamenduaren enkarguz egin dira, hark ikerketaren aurkezpenean adierazi moduan, eskuin muturrak edo funtzionario publikoek motibazio politikoz eragindako

biktimen aitortza eta erreparaziorako foru legearen aginduaren baitan.

KREIk 2016an Eusko Jaurlaritzaren-tzat egindako txostenean, 4.113 tortura kasu azaldu ziren EAEn, baina ikerketak jarraitu du eta 2021ean dagoeneko 4.311 dira, hau da, guztira 5.379 tortura kasu Hego Euskal Herrian, 1960-2015 epean. Zenbakia gutxi gorabehera bat dator Euskal Memoriak 2016an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuenarekin, 5.658 tortura kasu. Hala ere, torturatu askok ez du bere torturen berri eman, edo horietako hainbat hilda dago, eta ikertzaileen ustez, egiazko kopuruak aise egingo du 10.000tik gora.

POZA ETA ETSIPENA

Torturatuen munduan badira bi sentipen kontrajarri datu hauek guztien bulttan. Lehenik poza, azkenean Espainiako Estatuak behin eta berriro ukatu duen tortura azaleratzen ari delako, eta aitortza maila bat ere bideratzen ari delako, batez ere Eusko Jaurlaritzaren eskutik,

eta neurri txikiago batean orain Nafarroako Gobernuarenetik. Espainiako Gobernuan ez da inolako aldaketarik: tortura funtzionario bihozgabe gutxi batzuen zerbait isolatua izan da, eta izan denean epaitu eta zigortu da.

Batetik poza eta bestetik etsipena torturatuen baitan, ikusten dutelako KREIren txostena 2017an aurkeztu zela publikoki, eta oraindik ezer gutxi egin delako ikerketarekin. Egia, justizia, erreparazio eta ez-errepikapena dira biktimei bermatu beharrekoak, baina kasu honetan torturaren aurkako prozesu osoa lehen puntuan bakarrik geratzen ari da, egia. Ez da gutxi, baina Egiari Zor Fundazioko koordinatzaile Ainara Esteranek dioen moduan, “txostenak ematen du bide osoa egiteko aukera, baina instituzioek bide bukaera gisa hartu zuten. Inkomunikazioa ez da desagertu eta estatuak erabili duen torturaren tresneria osoa ere hor dago, behar izanez gero berriz martxan jartzeko prest”. Ainara bera ere torturatua izen 90eko hamarkadan, Espainiako Poliziak atxilotu zuenean.



FOKU / ENDIKA PORTILLO

Nafarroako torturatuen sareak 2022ko ekainean Iruñean egindako manifestazioa.

TORTURA HERRIZ HERRI

Nafarroako Torturatuen Sareko kidea da Ainara Gorostiaga eta taldean ere beldur dira ondoren zer gertatuko den, baina oraingoz pozik daude, "lehenbiziz Nafarroako erradiografia bat eta datu orokor ofizialak ditugulako". 2019an sortu zen sarea, eta harrezkero Nafarroan ikusgarritasuna eman dio torturari. Iragan urritik eta datorren iraile-raino foru erkidegoko 101 udalerritan torturari buruzko mozioak aurkeztuko dituzte. Elkartearen aurkezpenak ere egiten ari dira herriz herri eta horrekin jende asko batzea lortzen ari dira, besteak beste torturatuak. Datorren otsailaren 13an Torturaren aurkako eguna izango da, eta 11n torturatuek agerraldi berezia egongo dute Donostian torturaren ikerketa eta aitortza osoa eskatzeko. Ondoren, besteak bes-

te, *Karpeta Urdinak* dokumentala herriz herri ikusteko kanpaina abiaraziko dute, herrietan torturatuak ahaldundu eta antolatzeke asmoarekin, Nafarroan egiten ari diren gisan.

Torturatuen Sarea erreferente bihurtu da Nafarroan: "Edonorekin gaude-la, politikari, instituzio, elkarte... aurrez aurre guri inork ez digu ukatzen torturatuak izan garenik", dio Gorostiagak. Apurka, eskualde batzuetan torturatuak saretzea lortzen ari dira, baina beste batzuetan konplexuagoa da. Pirinioetan, esaterako, bada oraindik torturaz ezer-txo ere hitz egin ez duen jendea. Bere kasua azaldu nahi duen torturatuari formularioa pasatzen zaio hainbat daturekin bete dezan, eta Gorostiagak dioenez, "ez da erraza horiek betetzea. Gogorra da, baina, aldi berean, batzuei lagundu egiten die korapiloa askatzen, eta gero

eskertu egiten dute. Oro har, horrek indartu egiten gaitu, eta denborarekin etekina ateratzen diogu. Elkartean zaintzaren gaia mimoz jorratzen dugu gure artean".

ERTZAINTZAREN TORTURAK

KREIren ikerketaren arabera, Ertzaintzak 336 tortura kasu ditu. Ertzaintzari egotzitako tortura gehienak 90eko hamarkadan gertatu ziren, eta 2000. urtetik aurrera kasuak apurka jaitsi ziren. Torturaren hariak Madrildik gidatu dira, baina haren atzaparrak Arkautiraino ere iritsi dira. Eta bitxia da orain gertatzen dena, Eusko Jaurlaritzak esaten baitu KREIren lana sinesgarria dela, baina gero ukatu egiten du Ertzaintzak torturatu izan duenik. Iñigo Urkulluk Iñaki Iriondo kazetariak *Gara*-n 2016an egindako galderari horrela erantzun



Nafarroako Gobernuak urtarilaren 9an aurkeztu zuen KREIren txostena. Ezkerretik eskuinera, Martin Zabalza Bake eta Bizikidetzako zuzendaria, Ana Olló kontseilaria, J.M. González Oderiz Giza Eskubideen zuzendaria, eta Jeanette Ruiz, Laura Pego eta Paco Etxeberria KREIko kideak.



Paco Etxeberria, Laura Pego eta Jonan Fernandez 2016an KREIren ikerketa aurkezten.

zior: "Berdina al da galdeketa batean pertsona bat zutik izatea edo poltsa edo elektrodoen praktika? Berdina da? Ba ez, ez da". Ikerketaren arabera, Ertzaintzaren tratatu txar askok gorputz jarrerarekin zerikusia dute –denbora luzez zutik egotea, edo luzaroan jarrera desagokiak izatera behartzea–, baina horiek beste dira mehatxuak, kolpeak, oinarritzko beharren gabetzea, umiliazioak edo tortura psikologikoa, txostenean irakur daitekeenez.

2018ko apirilean PPK mozioa aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, eskatzeko Jaurilaritzari erretira zezala torturari buruz KREIren txostena, bestela ETArri jokoa egiten ari zitzaizkion. Legebiltzarrak atzera bota zuen eskaera. Iñigo Iturrate parlamentariak EAJren posizioa babestu zuen, baina aldi berean ertzaintzak giza eskubideak zaintzen zituela ere esanda; ikerketak eta nazioarteko erakundeek Espainiako Gobernuak interpelatu dutela azpimarratu zuen, eta ez Eusko Jaurilaritza.

Jaurilaritzak eta KREIk 2016an ikerketaren aurre ondorioak aurkeztu eta biharamunean, Jorge Aldekoa Ertzaintzako buruak Polizia autonomikoaren torturak ukatu zituen Donostian, EHUko Udako Ikastaroen ekitaldi batean. Tratatu txarren aurkako Ertzaintzaren protokoloa goreski zuen, eta adierazi zuen ikerketaren azken txostena ikusi arte nahiago zuela balorazio gehiago ez egitea. Institutuak bere ikerketekin jarraitzen du, baina orain arte aur-

keztutako txostenak argi zehazten du Ertzaintzak 336 tortura kasu dituela (txostenaren 154 orrialdea), zein garaitakoak diren kasuak (156 or.) edo zein tortura molde erabili zuen (184 or.).

Txostenak hitz egiten du ere, eta nahiko ondo gainera, Ertzaintzaren tratatu txarren aurkako protokoloaz, baina gehitzen du halaber, horrek ez duela saihestu tortura salaketak egotea. Aldekoak ondo azpimarratu zuen hori Donostiako ekitaldian: "Salaketak dira". Agintari jeltzale gehienek argi utzi ohi dute, ez dela inoiz izan Ertzaintzaren aurkako zigor judizialik. Ildo bereko adierazpenak egin izan dituzte Estefanía Beltrán de Heredia eta Josu Erkorekak, hurrenez hurren Eusko Jaurilaritzako segurtasun sailburu ohi eta egungo segurtasun sailburua.

GALDEKETEN GRABAKETAK

Ertzaintzaren bermeen artean zegoen, adibidez, inkomunikatutako atxilotuen galdeketen grabaketa. Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndez arartekoek, 1999. eta 2000. urteetan hurrenez hurren, grabaketa horiek egitea gomendatu zitoten Ertzaintzari urteroko haien txostenean, baina euskal Poliziak ez zuen halakorik egin 2006ra arte. Gainera, hil berri den Rodolfo Ares PSEko barne sailburuak 2009an kargua hartzean berretsi zuen moduan, grabatutako materiala ez zen hiru hilabete baino gehiago gordetzen; protokoloak, baina, eskatzen zuen ikertutako de-

lituari zegokion preskripzio denboran bederen gordetzea. Aresen ustez, Javier Balza sailburuaren garaian ez ziren grabaketak gordetzen eta berak ere ez zuen beharrezkoa ikusten. 2009an zalaparta handia sortu zen gaiaz, Ertzaintzak Ondarroan atxilotutako bederatzi gaztek torturak salatu zituztenean. Arartekoak galdeketen zintak eskatu zituen eta Ertzaintzak ez zizkion eman, ez berari ezta grabaketa eskatu zituen Durangoko Auzitegiko epaile bati ere. Argudiatu zuen ez zituela, hiru hilabetera ezabatzen zirela grabaketak, protokoloak eskatzen zuenaren aurka.

Inoiz ez da berandu egia eta aitortzarako, baino hobe berandu baino lehen eta ahal dela biktimak bizirik direnean. Espainiako Gobernuak joan den urtarilaren 20an barkamena eskatu zien *Almería auziko* Juan Mañas, Luis Cobo eta Luis Monteroren senideei. Hiru gazteak 1981ean torturatu eta hil zituen Guardia Zibilak Almerian, hiru etakiderekin nahasi ondoren. Hiru Guardia Zibil zigortu zituzten, buruzagiak hamar urte egin zituen espetxean, haren menpeko beste biek bost eginda atera ziren baldintzapeko askatasunean, eta estatuetako estoldetatik milioika peza eman zieten espetxetik atera eta Guardia Zibiletik bota ondoren bizitzari berrekiteko. Milaka euskal herriarren tortura ukatzen duen estatuak barkamena eskatu die hiru gazteen senideei, baina 43 urte ondoren. ●

5.379 Tortura kasu Euskal Herrian (1960-2015)


EAE-ko tortura kasuak (1960-2014)



4.113 kasu

Pertsona batzuk birritan edo gehiagotan torturatu zituzten.

Tortura kasuak urteka



Salatutako Poliziak, kasuak eta portzentajeak

Espainiako Polizia	1.786	% 43,3
Guardia Zibila	1.792	% 43,4
Ertzaintza	336	% 8,1
Udaltzaingoa	9	% 0,2
Espetxe funtzionarioak	21	% 0,5
Bestelakoak	89	% 2,1
Ez dago daturik	96	% 2,3


Nafarroako tortura kasuak (1978-2015)

Nafarroako txostenak (KREI)


	Tortura kasuak	Herritarrek*
1960-1978	164	153
1979-2015	532	434
Guztira Nafarroa	1.068	

* Pertsona batzuk birritan edo gehiagotan torturatu zituzten.


Tortura kasuak urteka (1979-2015)



Inkomunikatutakoen adina



Atxiloketen iraupena



ANDER IRIARTE

'KARPETA URDINAK' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

“Jaurlaritzak baditu 300 arrazoi torturaren gaiarekin jarraitzeko: ertzaintzaren 300 tortura kasuak”



Kriminologiaren Euskal Institutuak 2016an aurkeztu zuen EAEko torturari buruzko txostena. Haren informazioak txundituta, ikerketari buruzko *Karpeta Urdinak* dokumentala egin du Ander Iriartek (Oiartzun, 1986). Lana Donostiako Zinemaldian, Amsterdameko IDFAn eta Miarritzeko FIPADOCen ikusi ahal izan da, besteak beste. Otsailaren 13tik aurrera Euskal Herrian arituko da jiran. Errenteriako Giza Eskubideen Zinemaldian Ion Arretxe saria irabazi zuen eta oraintsu Argia Saria jaso du. Karpeta urdin bakoitza tortura kasu bat da.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO

Zure aitarekin [Joxe Iriarte, *Bikila*] hasten da dokumentala. Zer esan dizu aitak ikusi ondoren?

Guretzat prozesu bat izan da. Aitak ez zigun inoiz kontatu torturatua izan zela, baina liburuan idatzi zuen polizia-etxetik pasatu zela. Berak ez zuen bere burua torturatutzat, bera ez zelako Joxe Arregi edo Anparo [Arangoa] “bezain beste” torturatua izan. Euskal Herrian jende askok ez du bere burua torturatutzat hartzen, haiek ez dutelako beste batzuk adina jaso. Edo militantziagatik Euskal Herrian egon den “eutsi tinko!” horregatik, zeinaren arabera batzuek barneratu zuten tortura pasatu beharreko bidesaria zela. Aitak lehenik izan du Kriminolo-

giaren Euskal Institutuak emandako airtortza, eta uste dut dokumentalak balio izan diola onarpen soziala ere izateko.

Dokumentalean agertzen da hori ere, torturatuei nola kostatzen zaie hortaz hitz egitea, baita oso gertuko jendearekin ere.

Hori mekanismoaren parte bat da. Tortura hain da bortitza eta umiliazioa hain latza, torturatuek ezin dutela ingurukoekin partekatu, mingarriegia delako. Bestetik, ordea, guk ere ez dugu erraz jarri, hau da, ezker abertzaleak, edo hemen borrokan ibili diren mugimendu guztiak. Zergatik? Torturaren funtzio nagusietako bat da nukleo horiek sun-

tsitzea. Beraz, zuzenki edo zeharka, torturatuei esan izan zaie, “bai, salatu eta kontatu prentsan torturatua izan zarela, baina kito, gero ez ireki bihotza, eta mesedez ez hasi kontatzen nola ezin duzun lo egin, nola ezin duzun jan, nola zauden deprimituta... zeren hori guztia kontatzen baduzu taldean, taldea birrindu liteke, agian kide berriak ez dira etorriko...”.

Militantziak exijitu die militanteei zerbait oso perbertsoa: “eutsi tinko!”, *Itziarren semea*-ren mitoa mantentzea. Baina jakina, inork ez dio eusten, ezinezkoa da, eta horren ondoren lotsa dator. Tortura fisiko latzen ondorioz poliziaren aurrean hitz egiten dutenek, sikiera hori dute, fisikoa ikusi egin daitekeela. Baina tortura psikologikoa jasanda hitz egiten duenak, gero pentsa dezake “baina haiekin konparatuta niri ez didate ezer egin”, eta sarritan hori eramanezinagoa da eta kalte psikologiko larriagoak uzten ditu gerora. Sistemak dena du pentsatuta, torturatua izateko ziegan eta ondoren.

Dokumentalak indarra torturaren ikerketan jartzen du, batez ere.

Ikerketaren ponentziako kurtsoetara joateko aukera izan nuenean, nire amesgaizto okerrenak errealtate bihurtu ziren. Nik banuen torturaren errealtatearen berri, eta hala ere, ezin nuen irudikatu txostenak zekarrena: zer





zenbakiz ari garen, zein sistematizazioz egin den... Orduan pentsatu nuen honek aldatzen zuela gertatutakoaren errelatoa, hura zerbaiten hasiera izango zela, eta bi gauza pasatu zitezkeela: bat, egia, justizia eta erreparazioaren bidean neurriak hartuko zirela; edo bestela, kaleak sutan jarriko zirela, sikiera metaforikoki. Ez zen ez bata ez bestea pasatu.

Gaur egun esaten dut Eusko Jaurlaritzak badituela 300 arrazoi gai honekin aurrera jarraitzeko, txostenean frogatu dituzten Ertzaintzaren 300 tortura kasu horiek, hain zuzen. Denbora pasatu ahala, ikusi nuen txosten horrek bukatuko zuela Kriminologia Institutuaren apal batean, eta pentsatu nuen gizarteak jakin behar zuela era errazago batean emanda txostenak zer dakarren.

Lan honekin zer gehiago aurkitu duzu torturaz?

Lehenengo dago semiotika kontu bat. Gizartean erabiltzen den gisan, tortura eraso gogor bat moduan ulertzen dugu, baina ez da hori. Tortura estatuek historikoki izan duten erreminta bat da. Bigarren Mundu Gerraren ostean, aldiz, Giza Eskubideen Gutuna idatzi zen eta hartan estatuen tortura galarazten zen. Torturaren definizioan argi esaten da, funtzionario publiko batek edo funtzio publikoan diharduen pertsona batek eragindakoa izan behar duela, tortura existitzeko estatuaren babesa egon behar delako. Askotan esaten da, adibidez, "ETak torturatu zuen...", bada ez, hori krimen bat da, baina ez tortura, eta krimen hori jazartzeko baduzu legedi zehatz bat. Tortura askoz larriagoa da, egiten delako estatuaren mekanismo eta inpunite guztia erabilia.

Dokumentalean abokatu batek argi hitz egiten du sistemak torturatzeke dituen mekanismoez: ideologoa, planifikatzailea, torturatzailea... Gizartean ez da hori guztia ezagutzen.

Hemen torturaz hitz egiten denean kasu bakan gisa aurkezten dira: Galindo, GAL... Polizia bat ez da maila horretan torturatzeko ausartzen baldin badaki kalera botako dutela, zigortuko dutela... Gainera, erantzukizunak lausotzen dira modu horretan: inork ez du torturaren erantzukizun osoa hartzen bakoitzak gaztaren -arduraren- zati txiki bat badauka. Torturatu batek epailearen aurrean torturak salatu eta horrek ikertzen ez badu, delitu bat egiten ari da! Torturaren kate-begiak dira horiek guztiak, tortura gerta dadin ezinbestekoak. Inkomunikazioa tresna klabea da tortura gerta dadin, eta salbuespeneko egoera gisa behin-betiko ezabatzen ez bada, horrek esan nahi du ez zaiola atea itxi nahi torturari.

2016ko EAEko torturen txostenak eta oraingo Nafarroakoak esperantzarako leihoak dira, egia azaleratzen dutelako. Aldi berean, EAEn gertatutakoa ikusita, etsipenerako tresna ere badira, oraingoz ez delako aurrera egiten horien gainean.

Bai, hainbatetan esperantzarako ateak irekitzen dira eta ondoren etsipena dator. Hainbat alorretan gertatzen da, Euskal Herrian gertatu zaigu gure mugimendu soberanistarekin eta katalanei ere gertatu zaie haien borrokarekin. Baina ez da egia ez dutela ezertarako balio. Ezin genezake esan katalanen borrokak ez duela ezertarako balio izan, mugimendu nazional gisa duela hamar urte baino askoz indartsuagoak dira nazio gisa, nahiz eta agian due-

la hiru urte baino kohesio gutxiago izan. Espektatibak kudeatzea arazo handia da, baina torturatuek aditzera eman didaten arabera, lehen premia ez da justizia, haien lehen ardura egia da, eta egia ia erreparazioa salto egingo lukete.

Euskal Herrian oso gauza larriak gertatu dira, inoiz gertatu behar ez zirenak. ETak eraildako pertsona baten semeak, adibidez, beti esan dezake "ETak nire aita hil zuen", eta gizarteak min hori aitortu dezake, nahiz eta agian ez egon bere esparru ideologikoan. Etorkizunean horrek zauria sendatzen laguntzen du. Horrekin errelato bat egiten da, eta seme horrek sinetsi dezake kontakizun hori, beraz haren mina legitimoa da.

Gizartearen beste zati bat, aldiz, beti izango da errelatoaren mesfidati. Pertsona batek esan dezake bere aita torturatu zutela, baina ez zaio aitortzen, esaten zaio gezurretan ari dela, eta horrek mina egiten du, trauma kolektibo bat eragiten du. Bake prozesu batean min guztiak aitortu behar dira, min guztiak sendatu, zauriak itxi ezik beti izango delako errazago biolentziaren bideetara itzultzea. Gizarte osasuntsu bat behar badugu, tortura aitortzea ezinbestekoa da.

Jaurlaritzak, nolabait, aitortzen du tortura, txostenak egiazkotzat jotzen dituelako, baina ez da aurrerapauso gehiago ematen.

Askotan esaten da Espainiako Gobernuak ez duela aurrerapausorik ematen, eta egia da, baina hark ez du Jaurlaritzak duen txostena. Bere zigiluarekin egindako txostena da eta bere Polizia dago barruan, Ertzaintza. Jaurlaritzak badu bere osasun sistema eta baditu bere baliabideak, zergatik ez diote gaiari behar bezala heltzen?



Espainian oraindik erabat ukatzen dira tortura kasu horiek guztiak. Posible ikusten duzu nonbaitetik zirrikiturik irekitzea estatuan?

Ez dut uste Espainian torturarekin justizia egingo denik. Espainiak Erromako Ituna sinatua du, eta han esaten da tortura kolektibo baten aurka erabili bada, hori humanitatearen aurkako delitua dela. Demagun, batzuek dioten bezala, torturatu guztiak ETAkoak zirela. Erromako Itunaren arabera, horrek esan nahi du gizateriaren aurkako krimena dagoela, talde zehatz baten aurka torturaren bidez jo delako. Beraz, azken 40 urteetan Espainiako Gobernuan egon direnak epaitu beharko lirakeke, eta ez dut uste hori gertatuko denik. Gobernu batek nahi izanda ere, zaila litzateke halakorik gertatzea.

Torturaren aurkako testuak bilatzen ari nintzela, topatu nuen bat oso indartsua, Tomás y Valienterena [Francisco, ETAk 1996an hildako Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko lehendakaria], eta hala zioen gutxi gorabehera: "Lehergailuak, buruan tiro egitea, bahiketak... horiek guztietatik okerrenea tortura da, torturak

zikintzen duelako torturatzailerak eta estatua bera". Hori idatzi eta aste gutxira hil zuen ETAk. Beraz, diskurtsoaren aldetik, hemen gertatutako guztiarekin, madrildar batek torturarena sinistea ere ez da erraza. Baina tira, horretarako egin dut dokumentala, horretarako ari da lanean jende asko eta uste dut pixkanaka egia azaleratuko dela. Hartu kontuan oraindik ere 36ko Gerraren egiarekin ari garela.

Torturatuen une honetako lehen premia ez da justizia, haien lehen ardura egia da, eta egiatik ia erreparaziora salto egingo lukete



Ikusiko zenuen *Argentina, 1985* filma...

Bai, gau bat egon nintzen lorik egin gabe, "hau da hemen behar duguna" pentsatzen.

...eszena batean Julio César Strassera fiskalaren laguntzaile Luis Moreno Ocampok esaten dio lekukotzak behar dituztela, bere ama Pinochetzaleak sinisteko moduko lekukotzak. Hemen ere oraindik lekukotzak behar dira?

Uste dut ezin garela ibili beti torturatuei euren tortura testigantza eskatzen. Hori sekulako sufrikarioa da torturatuentzat, horietako askok esan didate nola torturatu zituzten kontatzen dutenean, hurrengo astean ez dutela lorik egiten. Gauza bat izan liteke epaiketa nazional batean kontatzea jasandako torturak -Argentinan bezala-, eta bestea, urtean lau aldiz lau hedabideri kontatu beharra. Lehen, ikerketa hauek ez zeudenean, beharrezkoak ziren halako testigantzak hedabideetan. Adibidez, inoiz

ezingo diogu nahikoa eskertu Eva Foresti egin zuen lana, titanikoa izan zen eta.

Hori beharrezkoa zen, baina dagoneko beste fase batean gaude, Kriminologiaren Euskal Institutuak oso modu profesionalean batu ditu testigantza horiek, eta orain borrokatu behar da aitortzaren fasea. Torturak ez du aitortzarik gizartean eta orduan azkar pasatzen gara kontakizun krudelera, ea horrela aitortza lortzen dugun. Orain beste gauza batzuetan jarri behar dugu arreta, adibidez zenbakietan.

Zure dokumentalean infografia ugari erabiltzen duzu.

Bai, ikusarazi nahi nuen ikerketa hori zein zorrotza izan den, eta emaitzak zein sendoak diren. Nik esaten badizut 5.000 eta piko pertsona torturatuak izan direla... asko da, baina ez dakigu dimentsionatzen. Katalan batzuekin egindako elkarrizketetan hala aipatu izan diet: irudikatu frogatu dela Bartzelonako hirian azken 50 urteetan urtero 100 pertsona torturatu dituztela.

Dokumentalean ez da agertzen agintaririk, epailerik.. alde hori apropos utzi duzu kanpo?

Bai, nik Kriminologia Institutuak egindako lana azaleratu dut, eta ia bi orduko dokumentala atera da. Dena ezin da. Egia azaleratu nahi nuen, orain gizarteari dagokio agintariak eta abar interpellatzea, torturari eutsi dion sistema oso hori interpellatzea. 5.379 karpeta urdin ditugu Euskal Herrian, 5.379 tortura kasu, gehiago ere izango dira, baina has gaitezen horiek aitortzen, geroago ez-errepikapeneraino iristeko. Orain herriz herri hasiko gara dokumentala ematen, herri herriz torturatuak ahalduntzeko, azken finean, haiek izan behar dutelako prozesu honen bultzatzaile nagusiak, Nafarroan egiten ari diren bezala. Torturatuek eskatu behar dute, eta gizarteak atzean egon behar du babesten. ●



Erabiliz gero, ate berriak zabalduko dituzu

ZER DA?

E _ _ _ S _ _ K _ _ A _ _ _



“TA ARGIA IN ZAN” EMANALDIA

ENERGIAREN DILEMAK URUMEA IBAI BARRUTIK

Ibai ondoan bizi dira Ainhoa Gutiérrez del Pozo eta Eli Pagola Apezetxea. Zentral hidroelektrikoekiko jakinminari tiraka hasita ikerketa eta zinema uztartzen dituen arte esperientzia prestatzen ari dira, Hernaniko Sormen Bekari esker: arte ikerketa honetan, harremanetan jarri nahi dituzte Urumea ibaiko zentral hidroelektrikoen potentzialari buruzko datuak, eta energia berriztagarri honek ibaiko bioaniztasunean dituen inpaktuenak. Filmaketa batzuetatik abiatuta, pieza desberdinak sortzen ari dira gogoeta proposatzeko.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

Urumea ibaian sartu dira Ereñotzun bizi diren Eli Pagola Apezetxea eta Ainhoa Gutiérrez del Pozo. Energia berriztagarriari eta bailarari buruzko jakintza zeraman lehenak; artistaren begirada eta 16 mm-an filmatzen duen kamera bat bigarrenak. Bien artean ikerketa hibridoa osatu dute. Zentral hidroelektrikoak bisitatu dituzte, Hernaniko paper-fabrikakotik hasi eta Leitzako lurretan direnetaraino: zein dauden martxan eta zein dauden utzita ikusi dute eta denen artean zenbat argindar sortzeko gaitasuna luke ten kalkuluak atera dituzte. Eta galdetu dute: zein eragin dute ibaian hidroelektrikoen presek? Arrainek noraino dute murriztua ibaian ibiltzeko askatasuna?

Horrek guztiak zer kalte sortzen dizkio bioaniztasunari?... Aldi berean, egitura hauetan eman diren aldaketak filmatu dituzte: udan bainurako leku dira presak, turbinen birarazle indartsuak dira neguan, zentral hidroelektriko batzuetan jendea bizi da edo beste hainbat erabilera ematen zaie...

Orain arteko ikerketa oinarri hartuta, arte esperientzia prestatzen ari dira: zentral hidroelektriko batera sartzeko aukera eskaini nahi lukete. Orain, egin dako filmaketak eta analisiak, bildutako artxiboa eta aurkitutako piezak harremanean jartzen dituen instalazioa prestatzeko lanean ari dira. Bestalde, erakusketa apirilaren 17tik 24ra Hernaniko Kultur Etxean egongo da ikusgai. Aste horretan, egileek proiektzio be-

rezi bat egingo dute, prozesua azalduz. Handik aurrera herriz herriko aurkezpenei zabaldu nahi diete atea.

Ikerketa eta zinema uztartzen dituen lan honekin herritarren artean partekatu nahi dituzte energia sortzeko aukerak eta honek dakartzen inpaktuei buruzko gogoetak. Hausnarketarako osagaiak mahai gainean jarri nahi dituzte, egun pil-pilean dagoen energia berriztagarrien gaiaren inguruan. Gutiérrezrek honela biribildu du lan hau egin ahala bi sortzaileek garatu duten ikuspegia: “Gizakiak ustiatzeko baliabide bat balitz bezala ikusten du ingurunea, eta hortik dator guztia. Ingurua gure onurarako gauzak ateratzeko modu gisa ikusten jarraitzen badugu, inpaktua sortzen jarraituko dugu. In-





paktu horretan zer ardura hartzea tokatzen zaigun pentsatzea da gakoa". Energia berriztagarri guztientzat balio duen galdera aireratu du: "Ez da inpakturik eza existitzen. Beraz, zenbateraino dugu zilegitasuna inpaktu bat sortzeko?".

ZERGATIK 16 MM-KO KAMERA?

Ainhua Gutiérrezek azaldu duenez, "16 mm-tan filmatzea pentsatu genuen, argiaren inguruko lan bat delako eta kamera analogikoan argia zuzenean inprimatzen delako pelikularen gainean. Beraz, lotura ikusten genuen gaiaren eta horrela filmatzearen artean. Bestalde, kamerak ez du argindarririk behar grabatzeko momentuan, soka eman da dabil". Egungo kamera digitalekin

ohikoa da grabazio orduak metatzea eta momentuan ikustea zer den grabatzen dena. Aldiz, kamera analogiko honek bere baldintzak ezartzen dituela azaldu du Gutiérrezek: "Ezin dugu nahi adina grabatu, beraz, aurrez ikertu eta erabaki behar genuen, genituen pelikulak nora zuzendu. Gauzak ezagutze-ra behartzen gaitu". Kamera horrekin dokumentatu dituzte Urumea ibaiaren erabilera anitzak iruditan, ahotsik gabe, eta pieza labur hori da emanaldian proiektatuko dutena.

Eli Pagolak adierazi duenez, denborarekin ere badu zerikusia hautuak: irudiaren estetikak garai batera hurbiltzen gaitu. Argi dute Hernaniko sorkuntza beka irabazi ez balute, ezingo luketela grabazio sistema garesti hau erabili.

ENERGIA "BERDEEN" ÑABARDURAK ARAKATZEN

Pagolak deskribatu du lanaren bigarren hanka, ingeniaritzakoa: "Oro har, energia berriztagarri gehienek izaera 'berde' horretan ñabardura batzuk dituzte: kasu honetan, ibaitik energia erauzteko eraikuntza batzuk behar dira eta horrek inpaktua dauka ingurunean. Badago talka bat. Lan honetan aztertu dugu, batetik, bailaran zenbat energia sortzen den, martxan ez dauden instalazioak kontuan hartuta zenbat sortu litekeen, bailaran (Hernani, Ereñotzu, Arano, Goizueta) kontsumitzen den argindar kopuruaren zer proportzio hornitu ahalko litzatekeen argindar kopuru horrekin... eta bestalde, hori elkarrizketan jarri dugu eraikuntza horiek ego-



teak dakarren eraginarekin. Horretarako, arrain eskalak landu ditugu”.

Zer da arrain eskala? Pagolak azaldu duenez, “zentral bat dagoen lekuan ia beti presa bat dago eta presa horrek arrainen migrazioa oztopatzen du. Hori pixka bat orekatzeko arrain eskalak eraikitzen dira, arrainak pasatzeko egitura batzuk, baina noski, arraintentzat ez da berdin ibai osoa libre edukitzea edo eskala edo bidetxo bat edukitzea. Presa beti izango da hesi bat arraintentzat. Eskala horiek ezaugarri zehatz batzuk izan behar dituzte eraginkorrako izateko. Baina beti ez daude eginda inguruak eskatzen duen moduan, aldagai asko ez dira kontuan hartzen eta ondorioz, askotan ez dute bere funtzioa ongi betetzen. Kalkulu bat egin dugu: egun dagoen eskala kopurua eta zer egoeretan dauden aztertuta, zenbakitara ekarri dugu arrainen fluxua zenbateraino baimentzen duten”.

Gutiérrez aitortu duenez, “lan honekin hasi ginenean bagenekien zentralek elektrizitatea eman dezaketela, baina ez genekien horrek zer kalte sortzen duen”. Lana egiteko elkarrizketatu dituzte Eguzki talde ekologistako militanteak, arrain eskaletan aditua den Pao Fernández Garrido baso-ingeniaria, zentraletako langileak, basozainak, Hernaniko artxiboa, bailaran gaiaren ezagutza duten herritarrak... Landa lana norbera bizi den eremuan egiteak dakarren

“ ”

16 mm-tan filmatu dugu, argiaren inguruko lan bat delako eta kamera analogikoan argia zuzenean inprimatzen delako pelikularen gainean. Lotura ikusten genuen gaiaren eta horrela filmatzearen artean”

AINHOA GUTIÉRREZ

gertutasuna aipatu dute: “Jendeak erraz kokatzen zaitu, eta horrek hartu-emanari konfiantza gehitzen dio. Gainera, gu ere esperientziaren parte gara, eta hori bilatzen genuen”. Gertutasun horrek eraman ditu proiektuan gako izan diren pertsonak ezagutzera, horien artean Xabier Etxegia. Bailarako lehen zentralean hasi zen lanean eta Urumea ibaiko zen-

tral asko ezagutu ditu. Egun, Goizuetako Rezola zentralerako langilea da.

Energia sorkuntzaren eta inpaktua- ren datuak aurkeztuko dituzte erakusketan. Pagola: “Horretarako, Haritik Hirira-ko geografoek hainbat mapa sortu dituzte. Hor ikus daitezke zentralak non dauden, zein dauden martxan eta zein ez, horietako bakoitza zenbat energia sortzeko diseinaturik izan den, beraien kanalak nondik nora doazen...”. “Datu hauek elkarrizketa eta eztabaidarako jarriko ditugu mahai gainean” jarraitu du Pagolak: “Ez da nahikoa esatea ‘hor energia sortzen da’, bai, baina zenbat sortzen da eta zer esan nahi du hainbat GW-k, hori zenbat da?”. Gutiérrezek hartu du hitza: “Gure energia kontsumoa ez da argindarra soilik, beraz, ez da erraz esatea hidroelektrikoak kontsumoa ase dezakeen. Eta ez dakit bilatzen duguna ote den egun dagoen energia kontsumoa asetzea, edo legokeenarekin nola bizi pentsatzea. Egia da uste genuena baino dezente gehiago atera daitekeela”. Pagola: “Guk datuak eta irakurketa batzuk plazaratuko ditugu, baina ez gara gai esateko sortuko litzatekeen energia aski den edo ez. Bada beste tranpa bat: hemengo zentral asko Accionarenak dira, Iberdrolarenak... Energia hemen sortzen da, seguraski hemen kontsumituko da, baina jabetza eta irabaziak beste nonbait daude”.



ARTEA ZENTRAL BARRUAN GOZATZEKO AUKERA

Proiektua idatzi zutenetik zuten gogoa emanaldia zentral hidroelektriko baten barruan egiteko. Gutierrezek azaldu duenez, “normalean arte lekuak hiriak eta herriguneak izaten dira eta beste toki batera ekarri nahi genuen. Gainera, hemen bizi den jende asko seguraski inoiz ez da zentral baten barrura sartu eta esperientzia hori ere bilatzen genuen. Horrek hainbat gogoeta ekarri dizkigu: pieza bat sortzen dugunean noraino den toki guztietan kokatzekoa, edo zer lotura dagoen espazioaren eta piezaren artean... Orain horretan ari gara, gure piezak lurreratzen”. Pagolak gehitu du: “Erakusketa hau esperientzia bat izango da batez ere. Hartu-emanen dauden elementu asko egongo dira, batzuk guk ezarriak eta beste batzuk bertan zeudenak. Uda osoa grabatzen egon garen zine pieza jarriko dugu, baina norbaiti begia ondoan duen turbinara joango bazaio, berdin digu. Hori ere bada gure proiektua ikusteko modu bat”.

Nolakoak ote dira zentralak barrutik? Pagolaren hitzetan, “zaharrak dira (gehienak 1920 ingurukoak), baldosa *vintage* bat izaten dute, kristalera handiak... Hala ere, oso zentral ezberdinak daude, asko eragiten du nolako ur saltoa daukaten, turbina zer motakoa den eta

“ ”

Lan honekin aztertu dugu martxan ez dauden instalazioak kontuan hartuta zenbat argindar sortu litekeen, eta bestalde, hori elkarrizketan jarri dugu eraikuntza horiek egoteak ingurunean dakarren eraginarekin”

ELI PAGOLA

zein urtean eraiki zuten”. Gutierrezek gehitu duenez, “harrizko paretak dituzte eta bitxia da, gehienek elizako rose-toiak izaten dituzte. Lilura sortzen dute, ez gaude ohituta hain makinaria handia ikustera. Asko utzita daude eta beste bizitza baten arrastoa ematen dute...”.

Zentraletan aurkikuntza bitxiak egin dituzte, Gutierrezek azaldu duenez: “Goizuetako Rezola zentralaren barruan mural bat dago margotuta, bere kanalen mapak eta ura nondik datorren erakusten dituen. Funtzionala da lanerako baina aldi berean, mural bat da, eta arte ikuspegitik erakargarria”. Pagolak jarraitu du kontakizuna: “Etxegiak kontatu zigunez, mural hori garbitu eta pareta txuriz margotzea zen enpresaren asmoa. Berak eskatu zuen mesedez gero berriz gainetik margotzeko irudi hori, beretzako hori zentralaren parte zelako. Onartu zioten, eta garbitzen hasi zirenean ikusi zuten azpian irudi hori bera margotuta zegoela. Hau da, behin eta berriz margotutako pareta da eta hiru bider garaian garaiko zaindarien eskatu dute marrazki hori mantentzeko”.

Beste aurkikuntza Pikoagako zentralen egin zuten, Gutierrezek azaldu duenez: “80ko hamarkadako diapositiba batzuk aurkitu genituen bertan, energiaren inguruko azalpenekin. Beste garai bateko ulerkerak dira, esaterako petrolioaren gailurra 2000. urtean aurreikusten dute... diapositiba horiek egun proiektatuta beste esanahi bat sortzen da”.

Bi egileen aurkikuntzak eta ondorioak aurrez aurre jaso nahi dituenak eta artearen bidez burua argitu nahi duenak Urumean du aukera, “Ta argiya iñ zan” emanaldian. ●

TUTERAKO KARTZELA ZAHARRA

1936ko errepresioaren gune nagusietako bat, proiektu urbanistikoaren jomugan

1936ko Gerran kartzela gisa erabili zen Tuterako San Frantzisko komentuaren eraikina. Ehundaka preso errepublikar giltzapetu zituzten leku hartan, eta asko fusilatuak izan ziren. Oroimen Historikoko Leku izendatzeko aukeraren aurrean, Rafael Moneo arkitektoak duela hogeita urte egindako proiektua atera dute tiraderatik PSNk eta Navarra Sumak. Bitartean, Tuterako Alde Zaharreko bizilagunek auzoko eremu hori birgaitzeko "behin betiko" proposamen bat eskatu dute.

 URKO APAOLAZA AVILA

Teilatua erdi erorita, hormak bistan, eta barrualdea sasiak hartuta eta altzari zahar herdoilduz josita. San Frantzisko komentu zaharrera gerturatzen denak segituan nabaritu du ukuilu usaina eta iragan ilun baten haize hotza ate zirrikituetatik barrena. Urte luzez Espainiako Armadaren hazitarako zalditegi gisa erabilia, eta horren aurretik, 1967 urtera arte espetxe munizipal izandakoa, klaustro ikusgarria ezkutatzen duen XIV. mendeko komentuak –*Sementales* koartela ere deitua– urteak daramatza erabili gabe eta erreforma baten zain.

Pasa den abenduan Nafarroako Gobernuko Gizarte Harremanetarako kontseilari Ana Ollok (Geroa Bai) iradoki

zuen eraikina Oroimen Historikoko Leku izendatu zitekeela, horretarako eskaera jasoz gero. Izan ere, toki horretan giltzapetu zituzten 1936ko udaran Erriberako ehunka errepublikar eta sozialista, eta horietako askok hobi komunetan amaitu zuten hilda. Ollok gogorazti zuen izendapenak ez duela espazio baten aipamen soila suposatzen, baizik eta "existitu zen errealitate hori irudikatzea".

Hala, Tuterako kartzela izandakoak Nafarroako beste eremu batzuek oroi-menerako duten izaera bera hartuko luke, Iruñeko kartzela, Otsoportiloko leizea, Eloko Teileria, Bidankozeko errepidea edo Sartagudako Memoria Parkea kasu.

MONEO, HUB AUDIOBISUALA ETA MILIOIKA EURO

Baina hiriko PSNren talde politikoa oroimen historikorako leku hori izendatzearen aurka azaldu da –"ez toki horretan behintzat"– eta eraikinean kultur etxe bat eraiki dadila eskatu du, duela 20 urte Rafael Moneo arkitektoak egindako proiektu batean oinarrituta. Tuterako Izquierda-Ezkerrak, bere aldetik, duela urtebete proposatu zuen Moneoren lana berrartu eta arkitekto tuterarraren inguruko erakusketa iraunkor bat jartzea eraikinean, beste hainbat gizarte zerbitzurekin batera.

Moneoren proiektu hura 2010ean onartu bazen ere, hurrengo urtean bertan behera geratu zen "UPNren gestio txarra-

ri esker", sozialistek salatu dutenez. Hala, 11 milioi euroko kostua izango lukeen azpiegitura ez zen sekula eraikitzen hasi eta Moneori 600.000 euro baino gehiago ordaindu behar izan zitzaizkion. Pareta zartatu ahanziak baino ez ziren geratu Alde Zaharra birgaitzeko fantasia urbanistiko hartatik... udal hauteskundeek ahanzturatik atera duten arte.

Eztabaidaren erdian, Navarra Sumako alkate Alejandro Toqueroren gobernu taldeak mozioa onartu du koalizioak udalean duen gehiengoarekin eta I-Eren aldeko botoekin. "Mahai bat" sortu nahi dute udalaren, Nafarroako Gobernuren eta Rafael

Moneoren artean, gaia berraztertu eta ikus-entzunezkoen eta bideojokoek *hub* bat egin dadin espazio horretan. Toqueroren esanetan "pertsonalki" aurkeztu dio proposamena María Chivite Nafarroako presidenteari, baina "ez da bere immobilismotik ateratzen".

Tuterako udal gobernuak proiektua jadanik idatzita dauka EDER partzuergo publikoaren eskutik, 11,5 milioi euroko aurrekontuarekin, eta Europako Next Generation funtsek finantzatzea nahi dute orain. Are gehiago, egitasmoa Espainiako Estatuko eta Nafarroako Erke-
degoko 2023ko aurrekontuetan sartzeko helegiteak ere jarri dituzte UPNk eta Nava-

rra Sumak iazko urtean, nahiz eta ez duten aurrera egin.

Boto arrantza kutsua duten ekimen horietatik harago, Alde Zaharreko bizilagunek eremua birgaitzeko "behin betiko proiektu bat" eskatzen dute, eta egoera *Marshall plana*-rekin konparatu dute: "Seguruenik ez dugu europar funtsetatik euro bakar bat ere ikusiko", azaldu zuen iritzi gutun batean Alde Zaharreko bizilagunen elkarteko lehen-dakari Eduardo Pinak. Príncipe de Viana erakundeak, bestalde, klaustroa kontserbatu beharrekoa dela esan du, baita bere barruan agerturiko Erdi Aroko azoka musulman baten arrasto arkeologikoak ere.



1936KO UZTAILEAN JENDE GEHIEN FUSILATU ZUTEN ATXILOTZE-GUNEA

San Frantzisko komentua ez da edozein toki Euskal Herriko historia hurbilean. Monjeak XIX. mendeko desamortizazioekin bota zituztenean, Lehen Gerra Karlistan ospitale funtzioak egin zituen eraikinak, eta 1840tik aurrera Tuterako barrutikartzela bihurtu zuten. Mende bat geroago, 1936ko udan Nafarroako Erriberan erreketek eta faxistek eragindako errepresioaren epizentroetako bat bilakatu zen.

Fernando Mikelarenak *Sin Piedad* ("Errukirik gabe", Pamiela, 2015) liburuan jasotako datuen arabera, 1936ko uztailaren 18an militarrek kolpea eman zutenetik 1937ko urtarrila arte, gutxienez 614 lagun sartu zituzten kartzela hartako ziegetara eta horietako askok ez zuten gehiago argirik ikusi –zehazki, 185 hil zituzten–. Tuterako udal artxiboan, kartzelako *estadillo* edo egonaldien fitzak arakatu ditu historialari nafarrak, eta datu ikaragarri gehiago eskaini ditu: soilik 1936ko uztailean, 301 lagun izan zituzten preso eta horietatik 119 izan ziren fusilatuak, atxilotuen %39,5. Portzentaje horrek Iruñeko probintzia-presondegian hilabete hartan izandako fusilatzeen proportzioa gainditzen du (%33,5).

Tuterako barruti-kartzelatik pasa eta fusilatu zituzten gehienak errepublikarrak eta ezkertiarak ziren, Izquierda Republicana, PSOE, UGT, CNT eta PCEko kideak tarteko. Tuteran, udaleko 19 zinegotzi eta kargu publiko hil zituzten gerra garaian –udaltxe atariko plaka batek gogoratzen duen moduan– eta tartean zegoen Aquiles Cuadra alkatea, kartzela hartan giltzapetu eta prozesu luze baten ondoren Iruñeko zitadelan berunez hilotz amaitutakoa.



San Frantzisko komentu zaharraren eraikina guztiz hondatuta dago barrutik. Kanpoaldeko hormak, berriz, grafitigileei 2011n eskatutako artelanekin daude apainduta. 1936an atxilotze-gunea bezala erabilia, hainbat presok bere buruaz beste egin nahi izan zuen, besteak beste burua paretaren kontra kolpatuz, jasotako testigantzen arabera.



Presoen jatorriari dagokionez, asko tuterarrak eta corellarrak ziren, baina bazeuden Alesbes, Cascante, Cadreita, Fitero, Murchante, Cintruenigo, Arguedas eta Ribaforadakoak ere. Adibidez, 1936ko uztailaren 19an –Iruñeko Gaztelu Plaza Nafarroa osoko erreketez bete zen egun berean– hamasei ribaforadar giltzapetu zituzten Tuterako kartzelan; abuztuaren 7an "askatasuna" eman zietela ageri da dokumentuetan, baina Altafaylla Kultur Elkartek 80ko hamarkadan egin zuen ikerketari esker dakigu denak hil zituztela. Ribaforadan garai hartan 1.720 herritar bizi zen, eta gutxienez 40 lagun fusilatu zituzten erreketek eta falangistek.

BASAKERIA ANTOLATUA

Erriberan faxisten eskutik bizi izan zen krudelkeriaren isla baino ez dira kopuru horiek. Beste toki askotan bezala, Nafarroan ere "ateratze" edo "saca" deiturikoak oso ohikoak izan ziren, ondoren presoak klandestinoki hiltzeko. Baina errepresioa ez zen izan kriminal solte batzuek nahieran egindakoa, ondo antolatutako zerbait baizik, jende askoren inplikazioa eskatzen zuena.

Mikelarenak 114 *saca* kontatu ditu Nafarroan 1936an: udako hainbat egun konkretutan toki desberdinetatik atera zituzten presoak fusilatzeraz –abuztuaren 3an zazpi herritan gertatu ziren halakoak, gau berean–; hortaz, pentsa liteke egun horietan heriotza-eskoadroi ugari aritu zirela jendea hiltzen.

Terrorea hainbestearainokoa zen, preso asko beren buruaz beste egiten saiatu zela. Francisco Amigot tuterarrak burua paretaren kontra kolpeka txikitu nahi izan zuen, Tuterako barruti-kartzelatik "atera" behar zutela esan ziotenean. Hara nola jaso zuen giro



Rafael Moneo arkitekto tuterarrak San Frantzisko komentu zaharrerako 2006an diseinatutako proiektuaren maketa.

*1936ko uztailaren
301 lagun sartu
zituzten preso Tuterako
barrutiko kartzelan,
eta horietatik
%39,5 fusilatu
egin zituzten*

hura Jose María Jimeno Juriok, testigantza baten eskutik: "Azaro hura ikaragarria izan zen. 'Aske' uzten zituzten, eta behean kamioia zegoen. Denak kamioira. Barruan geratzen zirenek, ikaraz, esaten zieten: 'Ez bazaizue ezer gertatzen, zubian piztu pospolotxo bat'. Baina ez zuten pizten, denak hiltzen zituzten!"

87 urte geroago, Tuterako kartzela zaharrean eta Erriberan gertatutako basakeria haiek apenas gogoratzen ditu inork, eta Queiles erreka barrunbeak hartzen dituen San Frantzisko plaza ondotik igarotzen denak eraikin zaharkitu abandonatua besterik ez du aurkituko, haize hotzaren txistuak soilik hautsitako isiltasunpean. ●

EUSKARA IKASLEEKIN KANPANIA



Familia handituz

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

85 gehiago gara. 85 izen-abizen. 85 etxe. 85 dira hemen-dik aurrera euskara ofiziala ez den eremuetan euskara ikasten ari diren lagunengana doan bidaliko ditugun aldizkariak. Ipar Euskal Herriko, Nafarroa erdiko eta Trebiñuko 85 pertsonak baliatu dute aukera –gogoratu iragan azaroan ARGIAk egindako kanpaina– eta pozarren jaso ditugu bakoitzaren arrazoiak eta lehen aste-karia jaso ondorengo euren argazkiak.

Euskal Herri osoko leku gehienetan euskaraz bizitzea zaila bada –ahoak bizi-bizi eta belarriak prest, baina eskua zabal-zabalik iristen da zaplaztekoa edozein bazterretatik–, aipatu berri ditudan eremu hauetan aurkako korronte erdalzalea oraindik ere indartsuagoa da zoritxarrez, eta beraz, ARGIAko lantalde osoarentzat plazera izango da gure lana eta gure hizkuntza astero lagun hauekin partekatzea. Gure komunitatea zaindu nahi dugu. Ahalegin bat eskatzen du 85 harpi-

detza gure gain hartzeak, baina atsegin da euskara ofizial ez den 85 etxe gehiagotara iritsiko dela jakitea.

Animo eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu euskara ikasteko bidean murgilduta dauden lagun guztientzat, eta ez dugu ahazten oraindik euskara ikastea ez dela doakoa eta beharrezkoa dela neurri hori hartzea, bidea erraztea, oztupo ekonomikoa kentzea eta euskara eskura jartzea.

Eta milesker zuri ere, ARGIAko kide, zure ekarpenari esker egiten baititugu posible halako kanpainak.

Artikulu hau irakurtzen ari zarela, oraindik ez zarela ARGIAkoa eta piztu zaizula gogo horrelako elkartasun ekimenak bultzatzea nahi dituzulako? Zuretzat ere bada mezu hau, zurekin bat gehiago izango baikara. Elkartasunean oinarritutako harpidetza eredu da ARGIArena. Agure zaharrak zioen: “*Hik tira gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan*”. Ez dakit laster eroriko den, baina tira gabe ez, seguru. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“ARGIAren proiektua erakargarria egiten zait. Euskaraz eta independentea izatea inportantea da niretzat”

Berastegitik Julenek

“Aldizkari kritiko independenteari arnasa emateko, bizi ditugun garaiotan inoiz baino gehiago. Gure seme-alabek sare sozialetatik jasotzen dituzten mezuen kontrapuntua eskura izateko, euskara hutsean gainera, ‘funtsezko zerbitzua’ baita”

Donostiatik Ioanese

“Kalitatezko eta euskarazko kazetaritza independentea inoiz baino beharrezkoagoa suertatzen delako egun, informazio anabasaren erdian gure burua kokatzeko ezinbestekoa”

Iruñetik Mirenek

“Bat: komunikabide interesgarriena iruditzen zaidalako. Jorrazten diren gaiak eta idazleen begirada kritikoak. ikuspegi eraldatzailetik eginak.


Bi: euskaraz irakurri nahi dudalako.

Eta hiru: proiektua babesteko, interneten maiz irakurtzen baitituz argitalpenak doan”

Erratzutik Anak

“Izugarrizko lan ederra eta beharrezkoa egiten duzelako”

Gasteiztik Naroak



Ekonomia, politika eta idiotak




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Peloponeso, duela 3.200 urte inguru. Hondamendi naturalak, barne gatazkak eta Itsasoko Herrien erasoak medio, Mizenasko zibilizazioa gainbehera etorri zen. Eraikin handiak, idazketa, merkataritza sareak... itzali egin ziren, eta antzinako Greziako Aro Iluna hasi zen.

Mizenasko botere egitura monarkikoa hautsita eta penintsularen orografiak eragindako isolamenduak bultzatuta, *oikos*-ak sortu ziren. *Oikos* hitzak etxea esan nahi du, baina zentzurik zabalenean: eraikina bera, familia, familiaren gainerako ondasunak (ganadua, lurrak, esklaboak...) eta han lan egiten zuten jornalariak. Beraz, garaiko gizartearen oinarritzko entitate ekonomikoa zen. Eta, hain zuzen, ekonomia hortik dator, *oikonomia* hitzetik: *oikos* (etxea) eta *nemein* (kudeatu).

Interes komunek eta kanpoko mehatxuez babesteko beharrak bultzatuta, oikosak batuz joan ziren eta antolaketa modu berri bat sortu zen: *polis*-a edo hiri-estatua. Aristotelesek zioen *polis*-ak pertsonen ongizaterako batutako *oikos*-en multzoak zirela. Aro Iluna pasata, Grezia Arkaikoa politikoki, sozialki eta ekonomikoki independenteak ziren komunitate horiek osatu zuten. Baina *polis*-en artean lehia gogorra zen arren, hizkuntza bera –dialektoak dialekto–, erlijioa eta, oro har, kultura partekatzen zuten.



HULTON ARCHIVE

Politika hitzak antzinako greziako ‘polis’-etan du jatorria.

Polis-etik dator politika hitza. Jatorriz, hiri-estatuekin zerikusia zuen guztia zen politika. Aristotelesek gizakia *zoon politikon* zela zioenean, gizakia animalia soziala zela esan nahi zuen, hiri-estatu batean eta legeen menpean bizi zena. Beraz, politikoa eta publikoa sinonimoak ziren.

Antonimoen bila, aldiz, *idiotes* hitza ageri zaigu; pribatua esan nahi du antzinako grekeraz. Beraz, jatorrian, idiota soilik interes partikular eta pribatuez

arduratzen zena zen, afera publikoei jaramonik egiten ez ziena. Greziarrek garrantzia izugarria ematen zioten bizitza publikoari eta, horregatik, mespretxuzko kutsua hartu zuen *idiotes* hitzak.

Eta, hala, Aro Ilunetik esnatzean, greziar zibilizazioa garatu ahala, europar zibilizazioaren oinarriak taxutuz joan ziren. Eta etimologikoki antonimoak ziren politikariak eta idiotak hurbiltzen joan ziren pixkanaka. ●



JAROSLAV MORAVCIK

Ez deitu “momia”

Britainia Handiko museoek, Londresko British Museum buru dutela, gomendio bat luzatu berri dute: momiei “momia” ez esatea. Horregatik, “pertsona momifikatu” edo “arrasto momifikatu” esatea hobetsi dute. Hitz horrek gizatasuna kentzen omen die eta ez omen da ego-kia iraganean bizi izan ziren pertsonen hitz egiteko. Fikziozko munstro bati ere

erreferentzia egiten diola kontuan hartu dute eta, gainera, terminoak kutsu kolonialista duela uste dute.

Egipton espoliatutako ehunka eta ehunka momiak (barkatu, pertsona momifikatuak) eta, oro har, beste herrialde batzuetan espoliatutako ondarea ez itzultzeak ez dauka haientzat kutsu kolonialistarik, itxuraz. ●



PIPERMINA, MINA ETA BEROAREN NEURRIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Hotzak beroa eskatzen du. Beroari deika udaren egunik luzeenak etorri aurretik hasi ginen, maiztzean. Orduan pentsatu genuen neguko hotzenean, piperrak landatu genitue-nean. Piper aldaera asko dago: gozoak, beroak, minak eta oso minak. Guk “pipermina” esaten diogu udan frijituta eta neguan ozpinetan kontserbatuta jaten denari, *Capsicum annuum*. Maiz mina egokitzen da, batez ere frijituta jaten denean eta entengaren neurritik gorakoa bada; gure aita zenarentzat 12 cm baino luzeagoko iltzea zen entenga. Hortik gora mina izateko arriskua handiagoa; handiagoa egiten delako edo, handitzeko berotan denbora gehiago eginez mintzen duen kapsaizina gehiago sortzen duelako. Betiko eztabaida piperzaleen artean. Nik handiak bezala ttikiak gustuko ditut, eta min punttua badute nahiago; min punttua e, ez aho osoa gorsortzen duten horien beroa.

Eta zer arraiotarako hartzen du lan hori piper landareak? Zertarako kap-

saizina berotzaile hori ekoizteko lana hartu? Landareak ez du bere beharrik ez hazteko, ez bizitzeko. Kapsaizina erabili egiten du piper landareak. Kapsaizina alelokimiko bat da, hau da, inguruan eragiteko landareak sortzen duen gaia. Hasteko, inguru-minguruan landare batzuek jaio eta hazteko zailtasunak izango dituzte kapsaizina dela medio: urazek (*Lactuca sativa*), alpapak edo luzernak (*Medicago sativa*) eta zenbait belarrek. Ikerketek diotenez, %50 arte atzeratu ditzake. Era berean, belarjaleak diren animaliak ere atzerarazten ditu, ez dituzte ahosabaia eta mingaina erre nahi. Belarjaleak bezala izurriteak sortzen dituzten animaliak ere uxatzen ditu. Kapsaizina piperraren mamian izaten da, baina batez ere piperraren barruan hazi iladei eusten dien plazenta mintz zuri-laruan. Piper hazieta ere kapsaizina zeregin zehatza betetzen du: haziak berak gai hori ez badu ere, zabaldu aurretik ustelduko luketen onddoak urruntzen ditu mintz horrek, baratze

landareen arerio sendaezinak diren *Fusarium* generokoak adibidez.

Piper haziak hegaztiekin sakabanatzen dituzte, piperraren laguntzailerik onenak dira. Ez dute kapsaizinarekin berorik sentitzen eta haziak dotore asko sakabanatzen dituzte. Belarjaleek, aldiz, hotz eta hagin artean haziak marruskatu egiten dituzte eta ernatzeko gaitasuna zapuztu. Itxura denez, piperrek gero eta kapsaizina gehiago izateko bideari ekin diote eboluzioan, txorien aldeko apustua egin eta belarjaleak usaintzera ere hurbildu ez daitezten.

Zenbait kiroleetan kapsaizina substantzia debekatua da. Piperraren minak sufritzen ari den kirolariarenak ahantzarazten ditu eta hipersentsibilizatzailea da. Behor-kiroleetan, adibidez, galarazia dago. 2008ko Beijingko Olinpiar Jokoetako behor-jauzi saioetan, lau behorrek positibo eman zuten kapsaizinan. Behorzaleek patrika berotu nahiko zuten, eta behorrek bero-bero zeuden baina deskalifikatu egin zituzten, noski! ●

LARREA JANARIAK

AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK IRUNEN,
KONTSUMO JASANGARRIA OINARRI

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

BDS Koop Eraldaketa Fabrika Behe Bidasoan ekonomia sozial eraldatzailearen alde lanean ari den kooperatiben elkarte da. Alor desberdinetako proiektuak batu dira bertan, tartean, nekazaritzaren eta elikaduraren bueltako zenbait egitasmo ere bai. “Eraldaketa fabrikatik proiektu desberdinak sortu dira, eta horietako bat izan da Larrea Janariak”, azaldu du Jaione Otxoa egitasmoko kideak. Duela urtebete jarri zuten martxan proiektua; prestatutako plater eta menuak saltzen dituzte dendan, eta banaketa ere egiten dute. Haien janarietan, baina, produktu ekologikoak eta hurbilekoak lehenesten

dituzte, kalitatezko jakiak eta jasanga-rritasuna bultzatzeko helburuz.

BERTAN EDO ETXEAN JASOTZEKO

Erosketak egiteko eta sukaldean ari-
tzeko denboraz larri direnei hurbileko
eta kalitatezko produktuekin elikatzeko
modua eskaintzen dio Larreak. Bi langile
ziren hasieran, Jaione bera eta Elena
Panconesi, baina hirugarren lagun bat
batu zaie gerora, Maria Huarte. “Labo-
re denda kooperatiboko ohiko bezeroa
eta sukaldaria zen Elena, nik ere beti
ostalaritzan egin izan dut lan, eta hortik
proposatu ziguten bioi hastea”. Gerora
batu zen Maria proiektura. Irungo La-

rreamendi auzoko dendan prestatzen
eta saltzen dituzte jakiak hiruen artean.

Plater eta menu formula desberdinak
daude Larreako eskaintzan egunero: lehenengo platera eta postrea, bigarrena eta postrea, plater bakarra... “Internetez ere eskatu daitezke menu edo platerak, egunean bertan edo aurreko egunetan, eta hemen edo etxean jaso dezakete bezeroek”, dio. Larrea.eus webgunea dute martxan, horretarako. Banaketa, berriz, Badoa enpresak egiten du, BDS Koop elkarteko kide den txirringa bidezko banaketa proiektuak. “Dena dela, denda-ko eguneroko plateraz gain, bestelako eskaintzak ere egiten ditugu: catering enkarguak, talde afariak, otordu jendetsuak...”, adierazi du Otxoak.

AUKERA BEGETARIANO ETA BEGANOA

Hurbileko ekoizleekin eta ekologikoe-
kin egiten dute lan Larrean, ahal den
heinean behintzat. Haien hornitzaileen
arteana daude, esaterako, Olaberriako
haragi ekologikoa ekoizten duen Oihana-
nalde, Bidasoaldeko Astiro eta Sorburu
Baratza, Jauregia esnekiak, Ekoalde...
“Azken batean, aurrez prestatutako ja-
kien denda da gurea, baina filosofia ba-
tekin prestatutako gauzak dira denak”,
gehitu du.

Eskaintza begetariano eta beganoa
ere badute Larrean. “Bezeroen profila-
ren aldetik, denetatik dator, sukaldean
aritzeko denborarik ez dutenak, irakas-
leak eta inguruko enpresetako langileak
adibidez, baina begetariano eta begano
asko ere etortzen dira, aukera hori beti
dugulako”. 7,50 eta 13 euro artean gas-
tatuta, ongi eta kontzienteki bazkaltzeko
edo afaltzeko aukerarik bada Irunen. ●



“ ”

Oso gertukoa zaidan mundu bat da
Bar Glorian jasotzen dena

Nerea Ibarzabal



Egoera ekonomiko hobeagoa lortzeko esperantzan bizitokia atzean utzi eta Gipuzkoako herri industrial batean finkatu berri diren familietako seme-alabak dira Rakel, Ana eta Miguel. Baserriko bizitza tabernakoarengatik ordezkatu du Rakel eta Anaren familiak, eta beren negozioan laguntzeko hartu dute Miguel, diru-sarrera beharrean den Soriatik etorritako familiako semea. Denboraren gehiengoan barra atzean eta sukaldean ematen duten hiru gazteen begietatik kontakizuna ehundu du Nerea Ibarzabalek bere lehen eleberrian: *Bar Gloria* (Susa, 2022). Bertsolaritzan bakarrik ez, literaturan ere maisuki aritzeko gai dela erakutsi du markina-xemeindarrak. Urtarrileko arrats goibel batean bildu bagara ere, hotzak eta euriak ez dizkigute uxatu liburuaz hitz egiteko gogoak.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA 📷 DANI BLANCO

Liburua argitaratzekoa zinela jakin orduko jo nuen zuregana, baina itxaron behar izan du hitzorduak, izan duzulako besterik esku artean. Bertsolari Txapelketa Nagusia, ez gehiago ez gutxiago. Finaleraino iritsi zara. Nola zaude?

Luze joan da Txapelketa. Eskerrak liburuaren argitalpena eta osteko fasea, txapelketarena, bereizi nituen. Txapelketan nahi nuen zentratu erabat, eta zorionez finaleraino heldu naiz. Udazkena emozio zurrumbilo baten baitan pasa ostean, ari naiz pixkana lur hartzen eta udan albo batera utzitako liburura gerturatzen. Liburuari buruz berbetan ikasten nabil orain.

Nolakoa izan da distantzia hartu ostean *Bar Gloriarekin* berri elkartzeara?

Uste dut ez naizela oso abila amaituta dauden sor-kuntzei buruz berbetan. Ez dut jakiten oso ondo zer esan, zeren dagoeneko pila bat gauza esaten ahalegindu naiz liburuan bertan. Gogoan daukat irakurle taldeetan parte hartzeko, literaturari buruz berbetan ikasteko eta liburuaren gaineko jendearen

iritziak jasotzeko. Zeren zuk istorioarekin badituzu asmo batzuk, eta halako espazioetan frogatu dezakezu intentzio batzuk funtzionatu dutela, beste batzuk ez, eta ikusi irakurleak beste modu baten irakurri dituela zenbait gauza.

Feedbackaren zain zaude?

Bai. Udazkenean zehar gertuko jendeak bidali dizkit mezuak, badakit zeinek irakurri duen eta zeini gustatu zaion liburu. Nahiz eta halakoetan gertatzen den gustatu ez zaionak ez dizula ezer esaten... baina beno, ez da helburu bat denen gustukoa izatea. Irakurleak, dagoeneko, konbentzitu dira konbentzitu beharrekoaz, edo kontrako.

Jendeak denetik esan dit. Galdetu didate zergatik girotu dudun 80ko hamarkadan, nirea ez den garai batean. Horrez gain, askok ez ninduen kokatzen liburuan jasotzen den mundu horretan, paisaia konkretu horretan, tabernetan, idi-probetan eta abar. Batzuek jakin-mina dute jakiteko nondik heldu naizen istorio horretara, eta denei erantzuten diet oso gertu gelditzen

zaidan mundu bat dela, oso gertu gelditzen zaizkidan pertsonaia motak direla, eta nahi nuela horretaz guztiaz idatzi. Sentitzen nuen beraien zauriak neureak ere badirela zentzu askotan, eta horri buruz idatzi behar nuela. Eta nahiz eta ez naizen hamarkada konkretu hori bizitakoa, uste dut hein batean hamarkada edo girotze tenporala ez dela guztiz-guztiz esanguratsua ere, edo niretzat behintzat ez da izan idazterako orduan. Liburuan jasotzen diren minak eta pozak sentitzen nituen beste edozein hamarkadako minak eta pozak bezala, eta horietan nahi nuen zentratu, ez hainbeste garaian. Nire nahia ez zen nobela historiko bat egitea.

Nire partetik, iruditzen zait euskal literaturaren mundura ate handitik sartu zarela. Oso ona iruditu zait eleberria. Zu nola sentitzen zara?

Gustura geratu naiz. Uste dut eduki dudun denboran egin nezakeena zela eta azkenean buruan neukan istoriora gerturatu dela. Beldur handiarekin ere aritu naiz, ez nekielako oso ondo non nenbilen sartzen, eta zentzu horretan babes eta irakaspen itzela izan da Susako Leire Lopez editorea hor egotea. Azken orduan, dena prest daukazunean eta zalantzak sartzen zaizkizunean, asko eskertzen da Lopez bezalako norbait ondoan izatea. Esaten dizunean “badoa inprentara” eta norbera hasten denean “itxoin, agian dena nahi dut aldatu” pentsatzen, ederra da ondoan norbait izatea esaten dizuna: “Konfiantza daukat honetan”.

Eta sortze prozesua, nolakoa izan da?

Jaurlaritzaren beka bat lortu nuen, eta urtebeteko epea neukan eleberriaren lagin bat aurkezteko. Kontua da bekak ez ninduela konprometitzen ezer argitaratzera, eta urtebetez idazten aritu nintzen, pentsatuz inoiz ez nuela argitaratuko idazten ari nintzena. Horrek sekulako lasaitasuna eman dit, uste dut sortze prozesuan eragin handia izan duen aspektua dela. Esango nuke horren eragina nabaritu daitekeela liburuan, badaudela arrastoak obserbazioari eta informazioa batzeari eskainitako urte horrenak. Perfume baten osagaiak galkatzen aritu izan banintz bezala da. Bapatean ohartu nintzen bannuela lurrina, eta orduan galdetu nion neure buruari: “Eta orain zer?”. Momentu horretan liburu argitaratzeko konbentzitu nindutenei aipamena egin nahi nieke, Uxue Alberdi, Miren Amuri-



za eta inguruko beste hainbat sortzailek liburuan sinestarazi nezan lortu baitzuten. Halakoetan tartean egoten baita norbere segurtasun falta.

Izenburutik hasiko gara. Istorioko pertsonaien harat-honatak eta nondik-norakoak ez dira, hain justu, loriatsuak. Pentsatzen dut ironia nahita bilatua dela.

Argi neukan tabernak emakume izena izango zuela. Gainera, “Bar” eta atzetik izen bat datorrenean, “Bar Gloria” kasu honetan, uste dut taberna eredu zehatz bat datorrigula denoi burura. Eramaten gaitu leku batera. Eta zergatik Gloria? Ba esan duzun bezala, paradoxari lekua egiteko. Zeren pertsonaiek, argi eta garbi, badaukate borroka bat loria eskuraezin horretara gerturatzeko. Purpurina eta euforia eta desfasea nahi dituzte, baina ezinbestean zerrautsez nahasten zaizkie [tabernako lurra garbitzeko erabiltzen dutena].

Aipatu duzu istorioa 80ko hamarkadan kokatzen dela, baina liburuan ez da inongo momentutan esplizitatzen zein garaitan gauden. Irakurlea deskribapenen bidez kokatzen duzu garai horretan. Nabari da atzean dagoen dokumentazio lana.

Argazkiak, pelikulak, liburuak... horietara jo dut. Baina batez ere tabernariak izan diren inguruko pertsona askori egindako elkarrizketetan oinarritu naiz. Eta dudak nituenan galdetu egiten nuen. Zentzu horretan, liburu oso bitarteko denbora guztian egon da *feedback* bat, hein batean nahi nuelako ahalik eta sinesgarriena izan zedin kontakizuna, eta hori ez lortzeak beldurra sortzen zidalako. Sinesgarritasuna lortu nahi nuen, baina ez nostalgia-gatik, garaia bizi ez duenak ez baitauka halakorik. Gehiago zen nire buruari ezarritako erronka –“ea kapaza naizen eszena hori harrapatzeko”– eta jakin-mina.

Oso eskertuta nago beren bizipenak kontatzeko prest egon direnekin, behin galdetzen hasita konturatu bainaiz gauza asko kontatu gabe eduki dituela jendeak. Batez ere bortxa egoerak eta tabernetan gertatutakoak. Eta bizitzarekin aurrera segitu dute, inork galdetu arte argi esan gabe zer gauza gerta dakizukeen taberna batean, zer esanik ez bizi osoa bertan pasa baduzu. Zentzu horretan bortitza izan da.

Aipatu duzu liburuan kontaktzen dituzun kontuek, pertsonak, oso

gertutik ukitzen zaituztela. Nondik jaiotzen da Bar Gloria? Zein izan zen eleberria idaztera eraman zintuen txinparta?

Uste dut galdera bat izan zela guztiaren abiapuntu: nola da posible bizi osoa lanean pasa duen jendeak pobre izaten aमितzea? Jubilaziora heldu eta ezer ez edukitzea? Errealitate hori ikusten nuen nire inguruan, errepikatzen zen patroia bat balitz bezala, eta asko tabernatik pasatako pertsonak ziren, emakumeak batez ere. Ulertzen dut zergatik gertatzen den hori, ulertzen dut sistema honen egitura, baina fokua nahi nuen jarri taberna bat daraman familia batengan. Nahi nuen bizipenen bidez jaso nola kudeatzen duen horrelako familia batek egoera konkretu bat –izan gaizki edo ondo–, nolakoak izan daitezkeen kudeaketak alor ekonomikoan, baina baita ere pertsonalean... Eta nola hori guztia eginda ere, ezerk ez dizun ziurtatzen biharko egunean loriarik. Nahi nuena gehiago zen min hori, min emozional hori, jasotzea. Behin idazten hasita ez duzu erantzunik topatzen; are, galderak ugaritzen zaizkizu.

“ ”

Gizon heteroek masiboki dominatutako espazioetan bestelako identitateen biziraupenak eta aliantzak jasotzea interesatzen zitzaidan

Istoriaa nondik kontaktzen den, horrek ere baldintzatzen du kontakizuna, eta erabat lotua dago liburuaren abiapuntu izandako galderarekin. Tabernatik kontatuak dira gertakizun gehienak, hil bukaerara iritsi beharrak hortxe mantentzen ditu denboraren gehiena protagonistak. Iruditu zait lan egin beharrak eragiten digun baldintzapenari buruzko kontakizuna dela, klase kondizio bati buruzkoa, alegia.

Bai, hori da, nahi nuen klase hori irudikatu. Lana kartzela bilakatzen da ezin duzunean utzi, dirua behar duzunean. Azken finean, leku batetik ihes egiteko,

askatasunerako, dirua behar duzu. Eta liburuak egoera horretan dauden bi familia aurkezten dizkigu: biak langile klasekoak, bata bestea baino pribilegiatuagoa zenbait aspektutan, eta lanaren bitartez eraikitzen da euren arteko harremana. Jaso nahi nuen lanak elkartu dituen pertsonak eta lanaren bidez eraikitako harremanak zein bereziak eta biziak diren, baina era berean zein hauskorak izan daitezkeen. Askotan ikusi dudana zerbait delako ondokoa: zurekin lan egiten duen pertsona pasa daiteke zure bizitzaren parte garrantzitsua izatek zure bizitzatik desagertzen den norbait izatera, handik ez dakit zenbat urtera berari buruz ezer ez jakiteraino. Badauka lanak halako osagarri berezi bat harremanak deskribatzerako orduan.

Isiluneek, aditzera emandakoek eta esan gabekoek toki handia hartzen dute eleberrian. “Saiatu naiz garbi hitz egiten ez duen jendearen hizkera hori aletzen”, irakurri dizut. Kuriosoa da: zu bezalako bertsolari eta kazetari bat, zeinak hitza duen indargune, (argi) esan gabekoei erreparatzen. Zer dela eta fokua hor jartzeko gogo?

Hitzarekin harreman handia duen pertsona naizen arren, esaten duena baino gehiago isiltzen duen pertsona ere bainaizela uste dut. Nire inguruarengatik ikasi dut egoera asko kudeatzen berba egin gabe, aurrera egiten korapiloak konpondu gabe. Ezagutzen ditudan pertsona askoren kasuan, pentsamenduek oso fuete hitz egiten dute, baina ahoak ez. Uste dut familia askotan nagusitzen den hizkuntza mota dela. Eta horrek zeini egiten dio mesede? Ba normalean, amaitzen duzu gatazkak isilarazten, eta hori izaten da betikoen kaltetan.

Eta familia-instituzioan gertatzen den hori tabernara estrapolatuz gero, berdin: tabernako lau pareten artean jazotako bortxa egoera baten aurrean ere, isiltasunak betikoak babesten ditu. Espazio publikoaren eta pribatuaren arteko nahasketa ematen da gainera, eta tarteko egoten dira “bezeroak beti du arrazoia” eta halakoak. Testuinguru horretan jendeak begien bidez hitz egiteko duen moduan ere nahi izan dut jarri arreta, gorputz-hizkuntzan, beste modu bateko narrazio horretan.

Bortxa egoerak eta horien aurreko isiltasuna aipatu dituzu. Irakurleak barkatuko dit espoilerra, baina:



bortxaketa batek irekitzen du liburua. Hamabosgarren orrialderako irakurleak kokatu du bere burua segundo erdian etsaitasunezkoa bilakatu daitekeen testuinguru batean. Eta etsaitasun hori, oro har, gizonek egikaritzen duten boterearen ondorio izan ohi da.

Gizon heteroek masiboki dominatutako espazioetan bestelako identitateen bizirau-penak eta aliantzak jasotzea interesatzen zitzaidan. Adibidez, bortxaketa jasaten duen pertsonaia, Miguel, argi nuen *marika* izango zela. Aipatutakoaz gain, nahi nuelako, baita ere, garai horretako LGTB mugimenduaren espazio batzuk islatu.

Gizonen dominazioa islatzeko espazio publikoan jarri duzu arreta, gizonen monopolio den eremuan.

Bai, batez ere tabernetan, nekazal inguruan, eta herri kiroletan, idi-probetan zehazki. Idi-probak txertatu ditut oso gertutik bizi izan dudana delako, baina horretaz gain, iruditzen zaidalako berezitasun bat daukala: animalien faktorea sartzen da tartean, eta horrek aukera ematen du animaliak ere pertsonaia bilakatzeko, eta beraien begietatik hitz egiteko gizakiei buruz. Asko sufritu izan dut herri kiroletan egiten den animalien erabilerarekin, eta liburua idazterakoan interesatzen zitzaidan mundu hori jasotzea animaliak eurak ere pertsonaia bilakata.

Hori egiteak, gainera, ahalbidetzen du ikustea nola dauden ohituta gizon batzuk

“ ”

Uste dut galdera bat izan zela guztiaren abiapuntu: nola da posible bizi osoa lanean pasa duen jendeak pobre izaten amaitzea? Jubilaziora heldu eta ezer ez edukitzea?

animaliak bezatzera eta instrumentaltizatzaera. “Nik zuregatik dirua ordaindu dut, beraz, nik diodana egingo duzu, nik diodan tokitik joango zara”. Eta hortik abiatuta, horien logika da inguruko pertsona guztiekin jokatu ahal dutela horrela. “Emaztea, alabak... pasako dira nik diodan tokitik”. Eta hori zerbitzuzko edo esklabutzazko harremanen oinarri da.

Bizenta, familiako ama, bigarren mailako pertsonaia gisa pasa daiteke. Alabaina, iruditu zait Bar Gloriako ardatza bakarrik ez, istorioarena ere badela.

Bizenta zein Patxi dira aita-aita eta amama, rol horiek bete-betean betetzen dituzte. Eta argi eta garbi, Bizenta falta den unean taberna desagertzen da. Bizentak gorpuzten du Euskal Herrian pila bat landu den “ama erabateko” eredua, eta nahi

nuen bistaratu zenbait unetan zenbat kalte eragin dezakeen eredu horrek. Izan ere, gatazkari ihes egiten dion ama bat da, saiatzeko guztiari beste leku batetik sostengatzen, atzetik eta isilean. Eta horrela ezin zaie eutsi hainbat konturi, eta azkenean gaixotu eta hil egiten da bat, izan sinbolikoki edo literalki.

Ama eredu hori erabili nahi nuen abisua gisa. Behin hilda, Bizenta ez da usteltzen kontakizunean, eta hor dago abisua: “Hemen nago”. Eta ohartaraztera datorrena ez da, hain justu, “santu bat naiz eta ni naiz jarraitu behar duzuen emakume eredua”. Gehiago da ondokoa: “Bizi, eta ihes egin ihes egin behar duzun tokietatik. Ni bezala hamabost urte hilkutxan egon ostean ez usteltzea ere ez baita ego-kia”. Batez ere alaba zaharrenari, Anari, zuzendua da abisua, etxetik joan ostean tabernara itzultzen den emakumea den heinetik. Idolatratu baino gehiago zalan-tzan jarri nahi nuen papera da Bizentak gorpuzten duena.

Aipatu didazu liburuan jasotzen direnek gertutik ukitzen zaituztela. Liburuak, beraz, ukitzen zaituen horretan arakatzera ere behartu zaitu. Nola atera zara hortik?

Hobeto sentitzen naiz. Sentitzen dut galdetu behar nuen zerbaite galdetu eta erantzuna jaso dudala, eta nabaritzen nuen min batetik zerbaite sortu dudala. Sentitzen dut zeozer zarratu dudala, eta geratu dela aitortza bat bizi osoa lanean pasa duen jende pila bati. ●



LIBURUA

Linterna piztu ta barrura



EREIN

ITZALEN DISTIRA ARRATE EGAÑA

EREIN, 2022

 AMAIA ALVAREZ URIBIA

Ohikoa izaten da argien itzalei buruz jardutea literaturan, pertsonaia baten alde iluna azaleratzea, zibilizazio baten ajez edo bizimodu ezkutuaren gorabeheraz aritzea. Baina Arrate Egañak kontrako norabidea hartu du *Itzalen distira* ipuin bilduman: laino beltzen artean beti ager daitezkeelako eguzki izpiak.

Izenburuak markatzen dizkigu, beraz, abiapuntua eta ipuinok partekatzen duten haria, bestela, askotarikoak direlako testu hauetako gaiak eta egoerak: kartzelan bizitakoa kaleratzean, etorkizunerako aholku artistikoak, bizitza eta heriotzaren arteko igarobidea, besteen onarpenerako egindakoak, familia loturak eta etenak, adiskidetasunaren eta maitasunaren artekoak, menpekotasunaren zamaren kudeaketa, eta gazteen justizia ekologikoa.

Zortzi narrazio dira guztira eta protagonistak ere ez dira ohikoak: kartzelatik irten berri den gizona, leihotik begira bizi den andre zaharra, elizara hileta prestatzera doan alaba atea, erretiratuentzako txangora doan bakarzalea, guraoenetik alde egitear dagoen gaztea, irakaslearentzat detektibe den institutuko ikaslea, galdutako bizitza berreskuratu nahi duen seriezalea, eta animaliak maite dituen ekologista beganoa.

Deseroso sentiarazi naute *Marquez*, *Ordezkoaren teoria* eta *Final Destination* ipuinek, bertan gertatzen direnek giro arraroa sortzen dutelako, sozialki arbuizatzen diren portaerak daudelako tartean, eta, horrenbestez, etika edo moralari buruzko debate filosofikoak egiteko aukera ematen dutelako bertan azaldukoak.

Norena da ohe hau?, *Nigan bizi den beste hori* eta *'Mercy' eman* narrazioekin ordea, irribarrea etorri zaitz ora. Izan ere, egoerek min eta atsekabetik duten arren, erraza da uneren batean protagonistarekin enpatizatzea. Denok izan dugu inoiz antzeko pentsamendu edo sentimendu kontraesankorrik.

*Lolitar*en ama-rekin, literatura irakasle bat dagoenez tartean, nire irakasle-lankideekin eta nire ikasleekin partekatze gogo sartu zait (ez dut egin, oraindik). Eta *Itzalak* ipuina da bilduma honen bihotza, itzal asko elkartzen direlako teilatu beraren azpian, familia normal baten baitan; bizitza askoren inflexio-puntu paraleloak. Sorpresa polita izan da liburu hau, bitxia, ederra eta gomendagarria. ●



MUSIKA

Opera komikorik serioena



OLBE

MONTSEERAT AUZMENDI DEL SOLAR

Mozarten ekoizpen operistiko guztia zoragarria da, baina ez dut uste oker nabilenik esaten badut *Così fan tutte* Salzburgoko musikariaren ekoizpenaren une garrantzitsuenetako bat dela. Argumentu arin eta itxuraz garrantzirik gabekoa erabiliz, giza ahulezietan murgiltzen da, gizon eta emakumeen berezko ahulezietan, eta nolabait tolerantziaren errebindikazio bat da.

OLBEk ekarri zigun ekoizpena bitxia izan zitekeen zenbait alderditan. Baina nik, zalantzarik gabe, haren asmamen musikalak nabarmenduko nituzke, batez ere, antzezpen bikaina izan zela ondorioztatzeko.

Egia da aukeratutako eszenografiak ez ziola ekarpen handirik egiten libretoari eta garatzen ari zen ekintzari. Egia

da, halaber, ekintza, gutxi gorabehera *belle époque* delakoan kokatzeak eta zeri kusirik ez duten pertsonaiak sartzeak, hala nola zeregin zehatzik gabe gora eta behera doan neurri txikiko aktore batek, ez digula antzezpenari osagai interesgarririk ematen. Baina, gutxienez, xelebrenkeria txiki horiek guztiak ez ziren opera bikain honen kalitate musikala desitxuratzeko bezain larriak izan.

Nakarlariak une bikainak izan zituzten. Xabier Anduagak, beste behin ere, sekulako ahots erakustaldia egin zuen. Baina, bere emari ikaragarriaz eta proiektzio handiaz gain, legato bikaina duela erakutsi zuen, eta Mozarten partiturak eskatzen dituen *pianissimi* eta fin-tasunak maisuki menderatzen dituela.

Bestalde, gaueko beste izarretako bat Vanessa Goikoetxea izan zen, Fior-

FITXA

Emanaldia: OLBE-k antolatutako Mozarten *Così fan tutte* opera.

Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Óliver Díaz.

Bilboko Operaren Abesbatza. Zuzendaria: Boris Dujin.

Bakarlariak: Vanessa Goikoetxea (sopranoa), Xabier Anduaga (tenorea), Serena Malfi (mezzoa), Itziar de Unda (sopranoa), David Menéndez (baritonoa), Pietro Spagnoli (baritonoa).

Eszena Zuzendaria: Marta Eguilior.

diligi rolean. Soprano honek tinbre pertsonala eta ñabarduraz betetako kantua erakutsi zituen. Bereziki distiratsua egon zen *Come scoglio* arian, baina kalitate mailari eutsi zion antzezpen osoan zehar.

Serena Malfi mezzook ere jardun nabarmena izan zuen Dorabellaren papelean, baina Goikoetxearen distira hori falta izan zitzaion.

Itziar de Undaren aktuazioa ere nabarmendu behar dugu, Despinaren papelean, ahots-dohain zein interpretazio-dohain handiak erakutsi baitzituen.

Óliver Díaz, Euskadiko Orkestraren zuzendaria, ikuspegi pertsonal batekin aritu zen; *tempi* motel samarrekin agian, baina ez zen inbaditzailea izan abeslariarentzat, eta ez zuen osotasunaren kalitatea oztopatu. ●



Lurpetik

AMETS ARANGUREN MADDI LASA

La Rue du izena orain arte Nebula izandako Iruñeko tabernak. Modernitoen garito horietako bat, non noizbehinka *jurruak* ere topa daitezkeen edota bestelako tribu urbano batzuk ere. Denetarik elkartu da ostiral iluntzez tabernako beheko pisuan. 25 bat metro karratu eta hiruna pertsona metro karratuko.

Duela ia bost urte ikusi nuen lehen aldiz Lurpekariak taldea zuzenean, Katakraken, Nebula zenetik metro eskalaretara. Oker ez banago, bi bateria, bi kontrabaxu, ahotsa eta tronpeta. Gaurko formazioak bateria eta kontrabaxu bana, berdin ahotsa eta tronpeta, eta tronboi baten berritasuna. Hasierako agurra eman du bakoitzak nahi izan duen doinu eta neurrian eta horrekin hasi gara lurpean sartzen, hasi da belarri garbiketa.

Martxan da soinu elkarriketa. Elkarriketa baino, lasterketa ematen zuen hasierakoak, bata bestearen atze-

tik segika. Baina lortu dute elkarren ondoan jarri eta begiak altuera berean izanda hizketan hastea. Unean uneko testuinguruari erantzutea eskatzen du inprobisazioak, musikari hauen jardunean presentzia handia duen jolas horrek. Baina, kasu, Hemsy de Gainzak esaten duen bezala, inprobisazioak daskarren askatasunak ez du kontsignarik eza suposatzen (ongi dakite hori hiriko beste txoko batean kontzertua eskaini berrian etorritako Peru Galbete eta Ibor RG-k ere). “Ez dakizue zer pasako den, baina guk are gutxiago”, bota du hasieran musikarietako batek. Libre edo ez hain libre emanikoez gain, izan dira ere kantu poperoago batzuk. Leku-txo bat egin diote, besteak beste, Ander García-ren *Liliak ihes* kantu ederrari (ez baduzue ezagutzen zoazte inmediateki entzutera mesedez, faborez, otoi eta arren) eta errekonozitu ahal izan ditugu bestelako melodia tradizional(ago)

LURPEKARIAK-EN KONTZERTUA

NON: La Rue taberna (Iruñea)

NOIZ: urtarilak 27

(tradizional esaten ahal dut...?) batzuk, jauziren bat tarteko.

Kontrabaxua ttun-ttun bihurtu da tarte batez eta hizkuntza frankoan mintzatu da Ion Celestino tronpetista, “baina sosak eskatzeko bakarrik”, beste dena “en vas-cuence”. Onomatopeiak, afinazio tenperatutik urruntzeko saiakerak eta esaldi eder batzuk Nerea Erbitiren ahotsetik at. Hauek dira iazko Bertsolari Txapelketa Nagusiko sintonia egin zutenak. Igual orain ulertzen da zerbait gehiago...

Bilaketarako talde gisa sortu zen Lurpekariak, kanporako baino gehiago barrurako agian. Baina sartu nahi duen guztiari da irekia barrualde hori eta zenbat ikasten den tarteka horra burua agertzearekin bakarrik. Motz egin zait gaurkoa eta kontzertuaren itxierako hitzak buruan egin dut etxerako bidea.

Erlojuari gelditzeko, eguzkiari ez sartzeko eskatuko diot, gaur-ak ez daitezen bihar-etan bukatu. ●



Hitz gezidunak

NAFARROAKO HERRI DANTZA ----- ADAR TXIKI ETA MEHE	ATMOSFE- RAKO GASA ----- TXIKI	KONPARAZIO PARTIKULA	MUSIKA NOTA ----- LEHERGAI EZAGUNA	ETORRI ----- 1002 ERROMATAR ZENBAKIZ	IRUTEKO TRESNA ----- GOGO AHALMENAK LANTZEA	UKITZERA BEHARTU ----- ARMENIAKO BIZTANLE
		NUKLEARRAK ----- MOLIBDE- NOAREN IKURRA				
PERTSO- NAIAREN IZENA ----- MAINATI			INTSEKTU SOZIALA ----- ALFABETOKO AZKEN LETRA			
					HEGAZTIEN KANPO ESTALKIA ----- NANOTESLA	
DENBORA MUGATU	KRISTO ONDOREN ----- PERTSO- NAIAREN ABIZENA					ERBIOAREN IKURRA ----- SUPREZ ERATUTAKO KONPOSATUA
		NAFARROAKO HERRIA			USAIMENA ----- BIZKAIKO UDALERRIA	
ABAGUNE, AUKERA ----- PARE BAT						
		BAT ERROMATAR ZENBAKIZ ----- BASAMOR- TUKO LARRE			POZKOR, ALEGERA ----- AURRIZKI: KONTRAKO- TASUNA	
OHARTA- SUNAREN ETENALDIA ----- ARAZO BATEN AZALPEN			AZPI, BEHE ----- MAIZ ERRE- PIKATZEN DEN KEINU	EMAKUME ----- KROMOSO- MEN OSAGAIA	ANPEREAREN IKURRA ----- NAFARROAKO UDALERRIA	FRANTZIOA- REN IKURRA ----- DUT, GIPUZKOAN
						LAMA
						SEGUNDO ----- RADONAREN IKURRA
IDIARI, ATZERA! ----- ANIZKOITZ			ERBESTE ----- AZKEN BOKALA			
				AITITE, AITATXI		

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3	6			7			8	2
8		4			6			
	7		3	4	8			
	5							
		3	5				2	6
	4	9	6		3		1	
	8			3	9	2	7	
9	3	1		2			6	
4		7	1		5	3		

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Zintzo, prestu.
2. Ugaria.
3. Hil.
4. Burusoila, karsoila.
5. Samoako monetak.



EBAZPENAK

1. ONEST
2. NAROA
3. ERAIL
4. SOILA
5. TALAK

4	2	7	1	6	5	3	8
3	1	8	2	7	5	9	4
5	8	6	4	3	9	2	7
2	4	9	6	8	3	7	1
7	1	3	5	9	4	8	2
6	5	8	7	1	2	9	4
1	7	2	3	4	8	6	5
8	9	6	2	5	1	3	7
3	6	5	9	7	1	4	8

V	N	O	J	I	V	N	U	Z	I	N	V
S	R	E	T	S	D	E	I	T	S	E	
S	R	E	D	E	A	M	E	V	N	A	P
	F	R		A			P		O	L	
I	A	L	A					I		I	B
Z	I	U	I	F				A	R	E	
V	S	N	U						E	P	E
E	R		T	N				O	K		
A	M	U	L	I	Z	J	N	O	N	I	M
I	R	U	N	I		N	I	M	O	X	T
K	O	K	I	M	O	T	V		Z	T	O
U		G	J		D	H		O		J	

Ares Romans

TATUATZAILEA.
OROITZAPENAK BETIKOTUZ.



ARTEA BIDELAGUN

"Artea betidanik egon da presente nire bizitzan. Nire ama arte kolekziogilea zen eta gaur egun margolaritza erakusketak egiten ditu; nire aita ezagutzen dudak marrazkilarik onena da. Ahizpa eta biok, txikiak ginenean, arte erakusketak eta galerietara eramaten gintuen amak. Beti esaten zuen gure inguruan edertasuna zegoela, eta gu ere gai izango ginela edertasuna sortzeko. Gaur egun horrek durundatzen nau behin eta berriz. Gurasoek, baina, ez zuten sekula artea ogibide posible gisa ikusten, eta ez ziren saiatu eta ez zidaten akademikoki sustatu. Zaletasuna zela zioten. Gerora, tatuajeekin kasualitatez egin nuen topo, baina uste dut dena aurrez nonbait idatzita zegoela".

"Oroitzapenak ilustrazio bihurtu eta betirako irudikatzen ditut jendearen azaletan"

Ama eta tatuatzailea da Ares Romans (Cerdanyola, 1991). Bere bigarren alaba, Gea, 2020ko martxoan jaio eta minutu gutxi batzuk geroago hil zen. Esperientzia mingarri hartatik sortu zuen Gea proiektua, dolu perinatalaren babesera zuzendutako zerbitzua.

 **SAIOA BALEZTENA**  **AMARTE FOTOGRAFÍA**

Noiz eta nola erabaki zenuen tatuatzaile izatea?

Hego Amerikan bizi nintzen eta marketing-aren alorrean egiten nuen lan. Txilen ezagutu nuen Jorge, eta maitemindu egin nintzen. Tatuatzearekin genion hilabete batzuk geroago, estudio bat zabaldua. Esperientzia oso txarra izan zen; inork ez zuen ulertzen une hura garrantzitsua zela guretzat. Estudio hartatik irten eta atean bertan Jorgeri esan nion: "Jorge, tatuatzaile egingo naiz maitasun istorioak tatuatzeko". Txileko hiriburuan, Santiagon, ikastaro interesgarri bat egitekoak zirela ikusi nuen; han hasi nintzen eta gaur arte.

Zure bigarren alaba, Gea, 2020ko martxoan jaio eta minutu gutxira hil zen. Pandemiak eztanda egin zuen handik hamar egunetara. Une gogorrak, ezta?

Gea hil zenean nire bizitza paralizatu zen, erabat. Hamar egun geroago konfinamendua iritsi zen eta ezin hobe oroitzen dut, telebistaren aurrean, albisteak ikusi genituen unea. Egia esan, niretzat oparia izan zen pandemia: seme zaharrenarekin eta bikotekidearekin, hirurok elkarrekin egon ahal izateko aukera eman zigun. Jorgek aitatasun baimena izan zuen, patioan hamaka bat jarri ge-


nuen eta lasai bizi ginen. Mundua gelditu zen aste horietan geure zauria ondo miazkatu ahal izan genuen, inor etxera etorri eta inork halako presiorik egin gabe. Ezinbestekoa izan zitzaigun dolua hobeki igarotzen hasteko. Gero, poliki-poliki, galderean erantzunak bilatzen hasi nintzen eta horrek ere lagundu zidan. Baina hasierako une hura, dolua, urrezkoa izan zen niretzat.

Testuinguru horretan sortu zenuen Gea proiektua. Nola gertatu zen?

Gure alaba hil eta hilabete inguru geroago, Jorgeri laguntza eskatu nion. Besoan hainbat senide tatuatuta ditut eta Gea ere egin nahi nuen. Jorgek lagundu zidan tatuatzen, baina ikaragarri gaizki ateratzen zitzaidan, negar batean ari nintzelako tatuajea egiten ari nintzen bitartean. Aurki ikusi nuen azalean marraztea sendatzailea zitzaidala; horrela erabaki nuen proiektua sortzea. Doluan zeuden familliei tatuajeak oparituko nizkien.

Erran eta egin. Nolako harrera izan du Geak?

Ederra. Dagoeneko 300 familia baino gehiago pasa dira gure estudio-tik. Eurek estudioa eta materiala or-



"Inork ez gaitu haur bat betirako agurtzeko prestatzen; naturalena delako gure seme-alabak baino lehenago hiltzea. Baina lau haurdunalditik bat heriotza perinatala da. Beraz, ez da hain arraroa."

daintzen dute eta nik nire lana oparitzen diet. Proiektua orain handitu egin da eta artapena tatuajeaz haratago ere badoa; babes emozionala ematen diegu lehen unetik, bai erditzean, baita ospitaleko lehen egunetan ere.

Nola egiten duzu lan?

Tatuajeak, tatuaje hutsak baino askoz ere gehiago dira niretzat: oroitzapenak ilustrazio bihurtu eta betirako irudikatzen ditut jendearen azaletan. Mimo handiz egiten dugu lan.

Horrez gain, nire lana egiteko 30 minutu behar baditut, bi orduko hitzordua egiten dugu. Familia ezagutu eta eurekin solastatzeko aukera dugu horrela, eta ilustrazioaren azken ukituak eurekin lantzea gustatzen zait, emaitzarekin pozik geratzeko. Oso harro nago egiten dugunaz.

Heriotza tabua da. Sistemak nahikoa prestatzen al gaitu haur bat

betirako agurtzeko?

Inork ez gaitu prestatzen, naturalena behintzat gu geure seme-alabak baino lehenago hiltzea baita. Heziketa anitz falta da, eta normalizatuta egon beharko luke. Izan ere, lau haurdunalditik bat heriotza perinatala izaten da OMEk emandako datuen arabera. Beraz, ez da hain arraroa. Eta ez hori bakarrik, haurdunaldian ez da dena arrosa kolorekoa: baliteke, guri gertatu zitzaigun bezala, haurdunaldian zure haurtxoari kardiopatia bat diagnostikatzeko, eta horretarako ere prest egon behar dugu, laguntza eskatu ahal izateko.

Dolu perinatala ere tabu handia da. Zer esango zenioke haurtxo bat hil zaion familia bati eta haren inguruko jendeari?

Askotan, besarkada batek hitzak baino balio gehiago du. Izan ere, haur bat hiltzen zaigunean ez da behar ezer esatea. Are gehiago, mina hain ikaragarria da

ez dagoela ezer esateko, ez dago hitzik min hori sendatuko duenik. Egin dezaketen hoberena da familia horrek bizitako esperientziari espazioa ematea, janaria eraman eta txakurrik badute, hori pasatzera ateratzea, baita haurraren izena galdetzea eta jaiotze-data apuntatzea ere. Gizarteak sarri existituko ez balira bezala jarraitzen du, baina euren inguruan solastatzeak laguntzen du.

Amaitzeko, amatasuna idealizatuta dagoela uste duzu? Nola aurreikusten zenuen zuk ama izan aurretik?

Txikitatik argi nuen ama izan nahi nuela. Horregatik bidaiatu dut asko. Harro nago ama izan aurretik egindako guztiaz. Nik amatasuna erraza zen zerbaiten gisa irudikatzen nuen. Uste nuen nomadak izan ginela, eta han eta hemen lan eginez biziko ginela. Gero ikusi nuen ezetz. Gure hirugarren semeari bihotzeko ebakuntza bat egin zioten jaiotzean, eta, ondorioz, ezin dugu nahi bezain bertze bidaiatu. ●

ERASOAK ERASO DIRA BAITA ZURE LAGUNAK EGITEN DITUENEAN ERE.

EZ DA SAGARDOA, ZU ZARA.
HARTU ARDURA.

Hernanin ez da jokabide matxista eta arrazistarik onartzen.



ee
berdintasun kontseilua

Txina komunismoaren aurretik

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Espero dut eman duten txapa amaituko zela behingoz, paraje hauetan egin behar zituzten lanak bukatu dituztenez. Baina ea berriz etortzen badira hobeto prestatuta harrapatzen gaituzten.

Urtea hasi denetik Youtubeko bideo bat ireki dudan bakoitzean atera zait iragarkia. Kartelak autobus-geltoki guztiak gainezkatzen. Eta postontzian “propagandarik ez” jarrita daukagulako, zeren bestela. Zuk ere ikusiko zenituen Shen Yun ikuskizunaren publiak. Txina komunismoaren aurretik: urdin zerutiar baten gainean ia hegan ari da soineko tradizionalak jantzitako dantzaria. Koloreek, konposizioak, gogora ekartzen dute erakunde kristauren bateko triptikoa –horrek pentsarazi dit sektore espiritualeko enpresentzat lan egiten duten diseinatzaile guztiek formazio bereziren bat jasotzen dutela, emaitza estetikoak hori izan dadin eta ez beste bat–.

Ikuskizunaren atzean Falun Gong talde erlijiosoa dago, fedearen merkatuan produktu berri samar bat: 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zuen Li Hongzhi eta Txinan jarraitzaile asko lortu zituen –eta “asko” esatea, Txinari buruz ari bagara, benetan asssssko esatea da–, baina problema serioak eduki ditu geroztik hango gobernuarekin. Duela zenbait urtetik hona, AEBetatik operatzen du. Horiak oinarritzeko datuak.

Ni, egia esan, ikuskizuna iragartzeko kanpainak txundituta naukalako hasi naiz gai honi buruz idazten. Nola sortu duten egoera bat –garesti ordainduta, imajina dezakegunez–, zeinean publiko guztia behartu duten haien mezua entzutera. Leku guztietan, euskarri guztietan, ordu guztietan: Shen Yun, Txina komunismoaren aurretik. Bonbardatu kontsumitzaileak oro, gupidarik gabe, hori da kontsigna. Batzuen defentsale-



Antzerkiaren publizitateko fotograma bat.

ro kognitiboak behintzat eroriko dira, pagatuko dituzte 70 eurotik 135era birtarteko prezioa zuten sarrerak, Txinako kultura tradizionalaren aitzakian mezu politiko oso konkretu bat entzuteko.

Esplika dezagun gordin: Shen Yunek Txinako gaur egungo sistemari kontrajartzen dion proiektuak, basikoki, teokrazia ultraeskuindar baten tankera dauka. Espektakuluan bertan kritikatzeko dira eboluzionismoa, ateismoa, homosexualitatea; Falun Gongek bultzatzen duen *Epoch Times* egunkari digitaletik paseotxo bat eman besterik ez duzu egin behar, eskuin muturreko edukiak barra-barra aurkitzeko. Ez da ezer berria gainera: Shen Yunen atzean dauden kontu ilunak, Falun Gong sekta bat ote den eta abar, aspaldi samarretik daude eztabaidagai, eta ez preseski Txinako gobernuarekin oso onberak diren medioetan.

Eta honetara iritsita, benetan kezkatzen nauena beste zerbait bihurtzen da: nola espioi-globoen eta krisi diplomatiko erraldoien garai hauetan, beste defentsa-lerro batzuk ere erraz-erraz erortzen zaizkigun. Txina da orain etsai berria, antza denez. Eta etsaiaren kontra edozerk balio duela ematen du, horrelako mezuak dakartzan zerbaiti pasatzen uztea barne. Salbuespen batzuk alde batera utzita –Elixabete Garmendia bikain, noski, gai honetaz *Berrian* idatzi duen “Ultraeskuindarrei gauzak errazten?” artikuluan–, *show* honetaz aritzean gure prentsa probintzial-autonomikoak propaganda errepikatu besterik ez du egin.

Esandakoa, ea berriz etortzen badira hobeto prestatuta harrapatzen gaituzten: Google izeneko tresna sofistikatu batekin ikerketa-kazetaritza pixka bat eginda, gutxienez. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



Elkarrekin hazten

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 13TIK 24RA

www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN